

BERRIGARA

94. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, ekainak 2



Gehigarri
berezia

Bergarako jaixak

egizabal

Azken hiru urteak gizonzkoen jantzien salmentara eman ondoren, zapata eta poltsen salmantan buru-belarri sartzea erabaki dugu. Gure bezeroei kalitatea eskaintzea da Egizabal zapata eta poltsa dendaren erronka eta horrexegatik zabaldu dugu Arrasaten denda berria.

Gizonzkoen jantzien likidazioa egiten ari gara. Bitartean, ondo pasa jaiak!!



AROSZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonia eta Faxe: 76 54 91

**ZATOK GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**

Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
 - ATEAK
 - ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK



Boni Laskurain, 4 behea Tfnoa: 76 51 71

- Markoak
- Koadroak
- Ispiluak
- Laminak
- Argazki euskarriak



Z E B E R R I D A ?

E S A N
D U T E

PELLO ZABALA *Euskadi Irratiko meteorologoa*

- Zer eguraldi izango dugu Pazkuetan?

- Ba ipar haizea dago aginduta baina euririk ez du uste egingo duenik. Pixkanaka pixkanaka hobera egingo du eta aste-bukaeran lainoak eta ostertatek izango dira ziurrenik. Oraingo prebisio txarrak ez dira eta apurka apurka hobera egingo du. Baina ez dago fidatzerik eta ikusi egin behar... Baina juergarako giro aproposa izango dela somatzen dut. Ez eduki beldurrik egingo duen eguraldiagatik, euri zaparradarik ez dago iragarrita eta pronostiko guztien arabera astebukaeran hobekuntza izango da.

- Jaietan koadrilek brusak jazteko ohitura daukate. Jertsearen be-



harrik izango al da?

- Ez dut uste, tenperatura freskoak izango dira baina berotzeko modurik onena dantza eta salto egitea izango da. Eta izerditan hastekotan zerbeza pare bat edan eta aurrera... Ea jai on batzuk igarotzen dituzuen bergarar guztiok, eguraldi sanoa egingo du eta. On-do pasa!!

"Astebukaeran eguraldiak hobera egingo du, eguraldi sanoa izango duzue jaietan"

"Iaz, trekingetan gidari lanak bukatu nituenean, gure lagun eta sukaldaria zen Ibrahim Akhon baltiak gidaturik, eskualdeko ekialdean dauden bailara batzuetan barrena abiatzea otu zitzaidan, espedizioek erabili ohi dituzten zirkuituetatik aparte, K-6 tontorra dagoen aldera egingez.

Zirraragarria izan zen. Gure aurrean mendi handi eta lerden batzuk azaldu ziren, dirudienez inork ezagutzen ez zituenak. Paradisu horren kokapena sekretupean gorde dugu beste inor gure aurretik iritsi ez zedin"

JON LAZKANO
Mendizalea
EGIN

I T U R R I O N E T I K

Aranzabalek selekzioarekin jolasten badu Bergarak milioi erdi jasoko du

Javier Clemente Espainiako selekzionatzaileak Agustin Aranzabal Realeko jokalaria bergararra deitu du Espainiak eta Armeniak 1996ko Inglaterako Eurokopara begira jokatu duten sailkatze partidurako. Aranzabalek partidu hori jokatu balu, Bergara K.E.k 500.000 pezeta eskuratuko lituzke. Aurreko igandean Realak eta Athleticcek Anoetan jokatu zuten partiduan Javier Clemente selekzionatzailea izan zen eta bergararrak egindako partidu bikainaren ondorioz selekziara deitu du. Selektzio absolutora joandako azken Realeko jokalaria Andoni Imaz izan zen, 1993 urtean.

"Gaur (ostegunean) goizean bertan enteratu naiz eta sorpresa handia hartu dut Clementeren deiarekin, ezin dut sinistu ere egin"

AGUSTIN ARANZABAL
Futbolaria
GIPUZKOAKO
HERRI IRRATIA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariipi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezar
Alex Labaien
Iñaki Eraña

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

3.900 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Tierra y Libertad

Una película de Ken Loach



TIERRA Y LIBERTAD

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 19.30, 22.30.

Astelehena: 19.30, 22.30.

Asteartea: 19.30.

Asteazkena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



AMOR INMORTAL

Osteguna: 20.00.



Zinea

▼▼ **Ken Loach** zuzendari britaniarrak (*Agenda oculta*, *Riff-Raff*, *Ladybird*, *Ladybird*) 1936eko Espainiako Gerra Zibilean kokatu du bere azken filmea. Aragoiko frentera, errepublikarren bandoaren alde borrokatzeko atzerritarrak helduko dira. Baina errepublikarren artean ere bando ezberdinak osatuko dira... **Ian Hart**, **Rosana Pastor**, **Iciar Bollain** eta **Tom Gilroy** aktoreak erreperto buruan.

▼▼ **Beethoven** musika konpositore ezagunari buruz **Bernard Rose**k idatzi eta zuzenduriko filmea zineklubean. **Beethoven** (**Gary Oldman**) jeinu bat izan zen bere garaian eta gaur egun ere musikako mito eta leiendetako bat da. Baina bere amodioaren misterioak hor dirau... **Isabella Rossellini**rekin.

▼▼ **Pol-Pol Argazki Taldeko** kideek pasa den apirilaren 9an Gorlan izan zen txakur leren lasterketan ateratako argazkiak ikusgai daude Nahikari tabernan. Herriko argazkilariek partaide eta txakurren esfortzua eta txakurren inguruko giroa isladatzen saiatu dira beren kolorezko lanetan.

Deiak

▼ **1943**an jaiotako bergararren anaiarteko eguna ekainaren 18an. Ordubatean meza eta ondoren bazkaria Antxonin. Izen-ematea ekainaren 15era arte 76 22 90 (Maher), 76 16 13 (Arantza Askasibar), 76 29 47 (Juanjo Arrieta) eta 76 53 22 (Fernández) telefonoetan.

▼ **Alkoholiko Anonimoak** taldearen hitzaldi irekia ostiralean, ekainak 9, 19.30etan Kultur Etxean.

▼ **Jon Balentziaga**ren margokak, eskulturak eta zeramika lanak Arrasateko Aita Menni Ospitalean ekainaren 16ra arte.

▼ **Argazkiak**. *Kirol Argazkien V. Lehiaketarako* lanak entregatzeko epea ekainaren 23an amaituko da. Argibideak 77 91 67 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 4:** Bolintxo.

▼ **Asteartea 6:** Mizpildi.

GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 2:** Estella.

▼ **Larunbata 3:** Mozos.

▼ **Igandea 4:** Mozos.

▼ **Astelehena 5:** Camacho.

▼ **Asteartea 6:** Puy.

▼ **Asteazkena 7:** Guallar.

▼ **Osteguna 8:** Estella.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

GPC Jokabideen Psikologia Kabinetea J.R. FERNANDEZ Kol. Zenb. E-2346

Antsietate, obsesio, depresio eta stresaren diagnostiko eta tratamendua, peritaje psikologikoa. RPS: 33-95

Ramon Maria Lili 2, printzipala eskuma ☎ 76 59 39 BERGARA

• *Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.*
• *Masajeak, solariuma, perikura, estetika...*

Josefina

Espaloia, 4 ☎ 76 35 38

Lehen mailako pelotari profesionalen IX. Pentekoste saria

Bigarren mailako pelotari profesionalen I. Pentekoste saria

Ekainak, 3 LARUNBATA
Ekainak, 4 IGANDEA
Ekainak, 6 ASTEARTEA



Arratsaldeko 4.30etan

Bergarako Udal Pelotalekua

■ Ekainak, 3 LARUNBATA (Arroyo II.aren debuta)








- BIGARREN MAILAKO TXAPELKETA
 - **Arteaga eta Arroyo II - Koka eta Oregi**
- LEHEN MAILAKO TXAPELKETA
 - **Etxaniz eta Tolosa - Eugi eta Galarza III**
 - **Ansotegi eta Galardi - Badiola I eta Oriden**

■ Ekainak, 4 IGANDEA

- BIGARREN MAILAKO TXAPELKETA
 - **Goñi eta Balerdi - Lejardi eta Bazeta**
- LEHEN MAILAKO TXAPELKETA
 - **Unanue eta Lasa III - Nagore eta Zezeaga**
 - **Soroa III eta Astarloa - Ortiz eta Azkarate**

■ Ekainak, 6 ASTEARTEA

- BIGARREN MAILAKO TXAPELKETA
 - **Finala**
- LEHEN MAILAKO TXAPELKETA
 - **Finala**
 - **Kalonge eta Alberdi III - Oregi II eta Andueza V**



EG(U)lri erantzuna

Ez, oraindik ez dira gure herrian faxistak eta jokaera faxistak erabiltzen dituzten jendilajeak desagertu ez; oraindik herri honetan (zoritxarrez) ez da desagertu jokaera faxistoideekin Euskal Herri aske baten alde borrokan dabiltzanei erantzuna ematen dieten Espainol, sasiesuskaldun edo saldurik. Horren adibide garbia dugu PNV eta beraien gaztedi putre, sasiesuskaldun eta neofaxista; diru ustelaren truke euskal gaztedia (eta Euskal Herria osoa orohar) interes espainiarrei saldu dietena. Zuen jarrera horren ondorioz euskal gaztediaren partetik jaso duzuen erabateko erantzun hori liseri ezinik zaudete; askatasunik gabe bizitzera behartu duzuen euskal gizarteak ez du barkatzen eta argi utziarazi dizuete.

Azkenik Jarrai eta bere militanteak errepresio polizialaren begipuntuan jartzeko egiten ari zareten ahalegina, zuen "caudillo" den Arzalluzek darabilen estrategia faxistarekin alderatzen da; Euskal Herrian hain txertatua dagoen Euskal Nazio Askapenerako mugimenduaren partaide den Jarrai gazte erakunde abertzale iraultzailearen indarraren errealitatea ezkutatu nahian.

Honenbestez esan Euskal Herriarekiko duzuen jarrera saldu horren aurrean euskal gazte mugimendu osoa izango duzuela eraiki nahi duzuen "España una,

grande y libre" proiektu horren aurka orain artekoa eta bi gehiago emateko prest.

Gora Euskadi Askatua.
Gora Euskadi Sozialista.
Gora Euskadi ta Askatasuna.

BERGARAKO JARRAI (KAS)

Aittu!! (bis)

Oso harrিতuta gelditu nintzen joan zen astean Berrigarano Deba Garaiko EGik ateratako artikuluekin eta are eta gehiago igandean egunkarian irakurritako beste artikulok batekin.

Ez dakit nortzuk diren EGikoak "Cristo Rey" k lehen egiten zuen lana, nork egiten duen orain esaterakoan, eta hemengo abertzaleak nortzuk jipoitzen dituzten esaterakoan ere.

Zergatik esaten dudan hau? Ba gertaera oso latzak jazo zirelako joan zen astean.

Euskal preso errepresaliatuen familiarrek Bilboko La Casilla pabiloi kanpogan, enkartelada isil eta baketsu bat egiten zeuden bitartean, paisanozko ertzainek eta EGiko partaide ugari hurbildu ziren Senideak zeuden tokira eta pankarta eskutatik kentzen zioten bitartean, mehatxatu, kolpatu eta iraindu egin zituzten.

Senidetakoek eskutan zituzten papel

informagarriak (Carabanchelen dauden presoak duten egoera pairaezina salatzaren zutena) eskutatik kendu eta apurtzen saiatu ziren. Aldi berean, "persona hauek" Senideen pankarta aurrean jarri ziren gizakate bat sortuz pankarta estali nahian eta Senideak "persona hauen" jokaera ikusi eta gero, pankarta tolestatu eta alde egin beharra eduki zuten.

Eta hemen dator nire harridura: oraindik EGikoek aurpegia dute esateko "Badaude oraindik gure herrietan ordungo "Cristo Rey" k egiten zuen bezalaxe, hemengo abertzaleak jipoitzen diharduten sasi gudarixak", baina nortzuk zarete zuek hau esateko? eta noiz arte onartuko ditugu euskal gaztediaren gidari direla dioten EGiko kide faszistoiden eraso eta mehatxuak?

Zuen hitzek salatzen zaituztete!!! Aittu???

G. I. (BERGARAKO PRESOK BATEN ARREBA) NAN: 15.378.668

Eskerrik asko

Bergarako EAJ-PNVk eskerrak eman nahi dizkie igandeko hauteskundeetan beregan konfidantza jarri duten bergarar guztiei.

BERGARAKO EAJ-PNV

Tiira biraka



◆ **Trafikoa jaietan**

Miguel Altuna Institututik Beheko Estazioraino Ibargarai kalea moztu egingo da jaietan. Bestalde, igandean goizeko 10etarako ezin izango da kotxerik utzi Seminariotik Avenida tabernara dagoen tartean. Era berean, igandetik asteartera egingo diren entzierroetarako ibilbidea libre egon beharko da 8etarako. Udaltzaingoak ataritako atea ondo itxi eta entzierroa amaitu arte kalera ez irtetzea eskatzen du. Entzierroa amaitu ahala bi etxaffero jaurtiko dira. Bestalde, kotxea ahalik eta gutxien erabiltzea eskatzen da.

JAIOTAKOAK

Danel Urzelai Labaien
Maiatzak 25

JAIOTAKOAK

Antonia Madariaga Larrañaga
Maiatzak 27, 95 urte
Josefa Gorosabel Etxagibel
Maiatzak 28, 86 urte
Jose Elgarresta Mujika
Maiatzak 30, 67 urte
Alberto Gabilondo Alberdi
Maiatzak 30, 48 urte

Arau subsidiarioei behin behineko onarpena eman zaie

Espedientea Diputaziora bidali da behin betiko onarpenerako

Arau Subsidiarioei behin-behineko onarpena eman zitzaaien aurreko legealdiko azken Plenon, pasa den ostira-lean. EAJk eta PSE-EEK baiezkua eman zuten eta HBk eta EAK, berriz, ezezko botoa eman zuten. Boto esplikazioan, Jesus Mari Garitano HBko zinegotziak 3 arrazoi nagusi aipatu zituen beren ezetza azaltzeko: *"batetik Maltzaga-Urbina autopista ez zaigu beharrezkoa iruditzen, bestetik Arrizuriaga parkea eta Ertzaintzaren kokapena inkompatibleak dira eta, azkenik, Zubieta-ko egur sekadorea lehen gune berde moduan kontentplazten zen eta orain edifikagarria dela jasotzen da"*. Juan Mari Garitano EAKo zinegotziak baiezkua eman nahi aurren ezezkoa ematera behartuta zeudela esan zuen: *"gure ustez Ertzaintza beste toki batean kokatu beharko litzateke*



Gaztetxeko kideek euren mozioa Plenon aztertzea eskatu zuten. Alkateak gazteen ordezkariekin biltzeko proposamena egin zien baina gazteek alde egin zuten.

eta auditoriuma Seminarioan egitea bobeto ikusten dugu".

Bestalde, Ibargarai inguruko hirigintza hitzarmen proposamena aurrera atera zen EAJ eta PSE-EEren aldeko eta EA eta HBren kontrako botoekin. Herri Batasunak gai

hori oso presaka eraman dela salatu zuen. Eusko Alkartasunak negozio horretan %15eko partizipazioarekin sartzen dela leporatu zion Udalari eta alkateak zer esan nahi zuten ez zuela ulertzen erantzun zion EAKo zinegotzari.



Adin guztietako jendeak hartu du parte aurten Literatur Lehiaketan.

Literatur Lehiaketako sariak igandean banatuko dira

Igandean eguerdiko 12.30etan X. Literatur Lehiaketako sari ematea egingo da Zabalotegiko aretoan. Gaztetxoetatik nagusietara bereiztutako 6 taldeetan honako egileak izan dira sarituak, zein sari eramango duten aipatuko ez dugun arren: lehen taldean Izargi Vega Mas, Mikel Larrañaga eta Garazi Olabarria; bigarrenan Lexeia Larrañaga, Malen Gurrutxaga eta Aitor Ugarte; hirugarrenean Sergio Santamarina, Markel Lete eta Mikel Alvarez; laugarrenean Jon Alvarez, Agurtzane Crespo eta Ainhoa Lekuona; bostgarrenean Amaia Madariaga, Unai López eta Iñigo Muruamendiaraz eta nagusien taldean, Roberto Eizagirre, Gurutzne Elkoro eta Jon Sánchez.

◆ **Bedelkaren ikastaroak**

Bedelkar herriko dendarien elkarteak bi ikastaro iragarri ditu: "Conceptos de gestión comercial" ekainaren 12tik aurrera (10 ordukoa) eta ekainaren 19an hasiko den "Gestión comercial informatizada" (20 ordu). Lehena doanekoa da eta bigarrena eman ahal izateko 5.000 pezeta ordaindu behar dira. Argibideak eta izen-ematea 76 04 68 telefono zenbakian.

◆ **Igerilekuak zabalik**

Eguzkia hartu ahal izateko kanpoko igerilekuak datorren asteazkenean zabalduko dira, goizeko 10etatik 6etara.

◆ **Oilagorraren oharra**

Oilgorra Elkarteko bazkideek ehiza lizentziak berritzu ahal izango dituzte ekainaren 7, 8, 13 eta 14an, 8etatik 10etara elkartean bertan.

◆ **Ahateak ibaian**

Mendia Bizirikek jakitera eman digunez, otsailean Deba ibaian ahateekin egindako errepublazioa bide onetik doa. Aste honetan bertan ahate batek 8 kuma izan ditu. Bigarren kasua da eta Mendia Bizirikek herritarrei ahateak zaintzeko eskakizuna egin nahi die.

◆ **Masaje zerbitzua Jubilatuetan**

Datorren astetik aurrera masaje zerbitzua jarriko da martxan Jubilatuetan, astearte eta ostegunetan 9.30etatik ordu batera. Zerbitzuaren iraupena orduerdikoa da eta prezioa 1.045 pezetakoa.



Senideakeko eta Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kideak osteguneko prentsaurrean.

Maria Eugenia Gracia preso egoera latzean Carabanchelen

Zelda zelular batean dago preso bergararra

Senideak kolektiboko eta Amnistiaren Aldeko Batzordeko kideek Maria Eugenia Gracia preso bergararrak Carabancheleko presondegian bizi duen egoera latzaren berri eman zuten joan zen osteguneko prentsaurrekoan. Gestoretako eta Senideakeko kideen esanetan Carabanchel oso gartzela zaharra da, zelular deitzen dioten horietakoa eta garbitasun aldetik egoera kaskarrean dago. Gestoretako eta Senideakeko kideen esanetan, "Kartzela zelularretako zeldak zaharrak, hotzak eta bezetasun haundikoak dira. Bare, kukaraxa edota arratoiak izaten dituzte. Lurrazpian daude, lebioak goikaldean dituzte eta bentilazio txarra dute. 4x4 metroko zeldak dira, burdinezko ohea dute, zementoz-

ko apala bat eta mahai bat lurrari itsatsita. Komunak zelda barruan dago eta ez dauka separaziorik".

Carabancheleko presondegiko zelda zelularretan ETako presoak daude bakarrik eta astean senitarrekoren baten 10 minutuko bisita bakarra jaso dezakete. Vis a vis-ik ez dute eta bisitak funtzionario baten aurrean eta gaztelaraz izan behar dira. 1990.ean era honetako zeldak ixteko agindua eman zuen gartzelako begiratze epaileak, baina zabalik daude oraindik.

Bitzita kondizio hobekoak eskatzeko gose greba hasi zuten Carabancheleko zelularretan dauden 13 presoek joan zen maiatzaren 15ean. Gose greba txandakatuz egiten ari dira. M. Eugenia Graciak ez du oraindik gose greba hasi.

Pepelu
Ilepaindegia
 Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

EXUKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
 Kruz Gallastegi **BERGARA**



Tramitazio sozial administratiboa. Tramitazio eta kudeaketa fiskala. Kontabilitate orokorra. Kontabilitate juridiko-laborala. Aseguroak.

Errenta aitorpena egitekotan bazara, dei egiguzu, ordua jarriko dizugu eta berehala egingo dizugu.

Irala kalea, z/g BERGARA • Tfnoa: 76 33 72 • Faxa: 76 57 85

AQUILINO

Margo lanak eta apainketa, E.M.

- ERA GUZTIETAKO MARGO LANAK •
- PAPER MARGOTUAK •

ARIBAR, C-4 Poligonoa. San Juan auzoa, 20570 BERGARA

☎ (943) 76 02 78 - 76 39 50

Victoriano Gallastegi EA eta PSE-EEko ordezkariekin bilduko da jai ostean

■ EAJ, EA eta PSE-EEk Victoriano Gallastegi alkate aukeratuko dute ekainaren 17ko Plenoan

Victoriano Gallastegi EAJko alkategaia jai ostean bilduko da Jaurlaritzako hiruko gobernua osatzen duten beste bi gobernakideekin. Lehenengo EAri luzatuko dio deia eta ondoren PSE-EEri. HBrekin biltzeko asmorik ez dauka.

Datozen lau urteetarako alkatea ekainaren 17an aukeratuko da. Tripartitoko partiduetako buruek Udaletan eta Batzarretan ere elkarrekin lan egiteko asmoak azaldu di-

tuzte egun hauetan eta beraz, ez da arazo haundiegirik izango Victoriano Gallastegi Bergarako alkate aukeratzeko.

Hala ere tira-birak izango dira udal gobernuko batzordeetako ardurak banatzerakoan. Juan Mari Garitano EAko alkategaia aurreratu digunez, "ez gara edozein karteraren truke sartuko eta gure asmoa udal gobernuan ordezkarietza lortu duten indar politiko guztiak biltzea da, negoziazioak

■ EAk Udalbatza osatuko duten lau indar politikoak nahi ditu herriaren gobernuan

ez dira errazak izango".

Udalbatza berria

Ekainaren 17an osatuko den Udalbatzan aurpegi berriak izango dira. 17 zinegotzietatik bederatziz estrenatuko dira legealdi honetan: EAJko Felipe Altuna eta Nere Amaia Zabala, HBko Maite Aristegi, Aitor Aranzabal, Mikel Eguren, Ane Miren Olabarria, Jose Ramon Etxeberria eta Agurne Barruso eta EAko Jose Antonio

Etxeberria. Bestalde, Victoriano Gallastegi, Jabier Gabilondo, Luis Abajo, Koldo Pereira, Xabier Zabaleta, Jesus Mari Garitano, Juan Mari Garitano eta Alvaro Esparzak errepikatu egingo dute.

Udalbatza berrian gizonetakoak nagusi izango dira (13 zinegotzi), baina aurreko legegaldian baino emakume gehiago izango dira, 4 zinegotzi, aurrekoan 2 izan ziren bitartean. Gero eta emakume gehiago, beraz, Udalean.

Optika P. MANSO

OPTIKO OPTOMETRISTA

BABES ITZAZU ZURE BEGIAK, HOR DAUKAZU AUKERA:

GIORGIO ARMANI

OCCHIALI

EMPORIO ARMANI

OCCHIALI

Polaroid

SERENGETI

STING
OCCHIALI

IND

POLICE

ROLLING

VOGART

VonFurstenberg
LUNETES

IVES SAINT LAURENT

VALENTINO







GUCCI

VOGUE
OCCHIALI

Ray-Ban

%25eko deskontuak
RAY-BANen modelo
guztietan

balorazioen ordua





Aloña Alvarez (erdian) tokatu zaio BEDELKAREk antolatutako sariketako koadroa. Luis Laskurainen margoa aukeratu du. Zenbaki saritua Bergara Pielan banatu zen. Argazkian Bergara Pieleko Cristina Agirre ere agertzen da eskumaldean.

Eskaparateak artelanez blai

Erantzun ona izan du Bergarako artistek herriko dendetan egin duten artelanen erakusketak

Harrera oso ona izan du Bergarako Dendarien Ekarteak, BEDELKAREk, azken asteetan antolatu duen erakusketak.

BEDELKAREko 113 dendetako eskaparateak herriko 30 artisten 113 artelanez apainduta ikusi ditugu egun hauetan. Idea original honek bi helburu nagusi izan ditu: alde batetik herriko artisten lanak

erakustea eta bestetik, Bergarako dendetako eskaparateak ikustera herritarrak animatzea. Helburua bete dela uste dute erakusketa bultzatu dutenek. *"Jendea ibili da eta interesa jarri du. Banatzen genituen boletoa gastatu egin dira bainbat dendatan. Erosketak gebitu diren ala ez jakiteko goiz da oraindik eta ez dugu horren balantzerik egin, baina basierako*

inpresioa oso positiboa izan da jendeak interesa bartu duelako eta gure

belburuak bete direlako egun hauetan ambiente oso polita egon baita dendetan" adierazi digu dendarien elkarteko ordezkari batek.

Erosketak egiteagatik boletoa banatu dituzte eta maiatzaren 19an egin zen zozketa. Irabazlea Aloña Alvarez izan da eta eskaparateetan zeuden 113 artelanen artetik San Lorentzoko Jesusa Ugarte mertzerian zegoen Luis Laskurainen bodegoi bat aukeratu du. *"Ikusi ditudan guztietatik Laskurainena gustatu zait gehien. Etxeko janlekuan eskegi dugu"* esan digu Aloña Alvarezek. Boleto saritua Bergara Pielan eskuratu zuen Aloñak.

Esan behar da, bestalde, ikusgai zeuden artelanak salgai daudela oraindik, beraz animo. Anezka mertzerian zegoen Fernando Arenaza pintorearen koadro bat saldu da orain arte.

"Bededelkarreko dendetako eskaparateetan herriko 30 artisten 113 artelan erakutsi dira"



GIARTZU gimnasioa

■ Zeintzuk dira GIARTZUren planak uda honetarako?

Ekainerako dantza garaikideko ikastaro bat prestatu dugu. Ikastaroa **doan** izango da eta GIARTZUko bezeroentzat bakarrik. Hasiera batean ikastaroa ekainaren 1ean hasi behar zen baina irakasleak lesio bat izan du eta 15ean hasiko da.



■ Zer ordutegi izango du ikastaroak?

Asmoa arratsaldeko 8.00etan edo 8.30etan hasia litzateke baina oraindik zehazteke dago. Jendeari egokien datorkion ordutegia jarriko dugu eta klaseak astean behin emango dira.

■ Zeinek emango ditu klaseak?

Irakaslea **Arnaldo Patterson** kubarra izango da. Dantza garaikidean aditua eta bere alorrean munduko profesionalik onenetarikoak. Antzoki onenetan lanean ibilitakoa, Paris, Kanada, Italia eta ia Europa osoa zeharkatu duena. Parisen

**Marisabel
HURTADO**

"Arnaldo Patterson kubarrak, dantza garaikidean munduko espezialistarik onenetarikoak, dantza ikastaroa emango du Giartzu gimnasioan doan"

adibidez **Paris Center** antzokian lan egin du, baita Cannesen dagoen Rosella Hightower-en eskolan ere. Gainera, hemen ere izan da lanean eta hemengo giroa ondo ezagutzen du. Hau oso garrantzitsua da jendearekin konektatzeko eta giro jatorra lortzeko.

■ Zein da ikastaro honen

helburua?

Batez ere ondo pasatzea, saltsa eta merengea bezalako erritmoak dantzatzen ikasi eta dantza garaikidea ezagutzen hasia. Jendearen erantzuna ona bada, aurrerantzean beste ikastaro batzuk antolatuko ditugu. Bestalde, modalidade hau oso ondo dator gimnasioan egiten diren beste iharduerentzat, aerobic-a edota pesentzat esate baterako. Gorputzari flexibilitatea eta mugimendu dotoretasuna ematen dio. Gimnasioan dabilen jendearentzat oso interesgarria da eta gauza berriak ikasteko aukera paregabea gainera.

Legedia

Transmisio patrimonialen zerga

- Zer dio Konstituzioak etxebizitzaren inguruan?

- Konstituzioak jasozten duenez herritar guztiek daukate etxebizitza izateko eskubidea eta horretarako baldintza egokiak jarri behar dira. Bi aukera nagusi daude: babes ofizialeko etxeak egin (protektzio ofizialekoak) edota egindako etxeak (2. eskukoak) babes ofizialeko bihurtu.

Honelako etxebizitza bat eskuratzek abantaila batzuk suposatzen ditu: subentzioa bat "a fondo perdido" (%2koa) eta kreditu merke bat (%4,75koa) eskuratzeko aukera dago. Kreditorekin 10 milioi pezetako etxe batetan 6 milioitako aurrerapena lor dezakegu kreditu arrunt batekin konparatuz. Horretarako baldintza batzuk bete behar dira: orokorrean erosleek ezin dezakete 2,6 milioi pezeta baino gehiago irabazi. Eta bigarren eskuko etxebizitza bat babes ofizialekoa izateko ezin daiteke 90 m2 baino haundi-

agoa izan, m2ko prezioa 118.000 pezetakoa baino baxuagoa izan behar da eta etxebizitza bezala erabili behar da, espekulazioaren kontra egiteko.

- Zein arazo dago Transmisio Patrimonialen zergarekin?

- Bigarren eskuko ondasun bat erosterakoan ordaindu behar den zer-



JESUS MARKAIDE
(Deba Garaia)
Inmobiliariako zuzendaria

ga bat litzateke. Baina babes ofizialeko etxeetan inpuesto hori ordaindu beharrik ez dago, hau da, bigarren eskuko babes ofizialeko etxe bat erostekotan ez dugu %6ko inpuesto hori ordaindu

beharrik.


Baina Haziendak zerga hori ordaindu behar dela adierazi du, bigarren eskuko etxeek zergaren salbuespenerako eskubiderik ez dutela esanez.

Gobernuak ahalmen lejislatibo bakarrik dauka etxebizitzaren inguruan eta laguntzak emateko, eroslea hainbat baldintza betetzera behartzen du: etxea ezin daiteke 5 urtetan saldu eta, bestetik, 25 urtetan errejimen espezial batean dago. Saltzekotan lehenbizi Euskal Gobernuari adierazi behar zaio eta prezio mugatu batean saldu behar da, espekulazioa ebitatzeko.

- Zein da zergaren inguruko egungo egoera?

- Arazo soziala da. Bergaran ere 60 familia inguru afektatuta daude. 2. eskuko babes ofizialeko etxeei karga guztiak eta benefizio guztiak aplikatu behar zaizkiak, tartean zerga hori ez ordaintzearena. Bestalde, arazo honek ahalmen ekonomiko baxuko jendeari afektatzen dio nagusiki. Arartekoak edota Eusko Jaurlearitzako Etxebizitza Sailak arazoia eman digute baina Diputazioak ez. Orain epaitegietara jo dugu baina erabakia luzarorako denez, komeniko litzateke aurretik politikoek horren aurrean beren jarrera argitzea.

"Babes ofizialeko bigarren eskuko etxeetan ez dago %6ko zerga hori ordaindu beharrik"



Toki-Ederren babes ofizialeko etxeak egiten hasi zireneko argazkia.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
D. Itala, 3 - Tlf. 761235
Matxolegi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA


DEBA GARAI
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 beheka ☎ 76 21 80-76 06 37

Goazen juergara!!



**EL INQILINO
COMUNISTA**

**Noise musika
Bideberriko
gauetarako**

**FRANCISCO
MARCO
OYARZABAL**

**Igandeko
txekorren zai**

**BERGARAKO
ERESERKIA**

**Herriko martxekin
batera domekan
aurkeztuko da**

TRABUKO

**EGAN taldearen
testigua hartu eta
martitzeneko
dantzaldirako prest**



Iturgintza

arrañaga s.l.

Matxiategi, 16 ☎ 76 29 97 - 76 04 22 20570 BERGARA


URA

GASA


BEROGINTZA

GIROTZE SISTEMAK

Dagoeneko jar ditzakezu giro atsegin eta erosoaz gozatzeko aukera emango dizuten aire-girotzailea. Udan nahiz neguan mandoaren bidez hotzberoa, hezetasuna eta aireztapena programatu ahalko dituzu.




◆ MURALAK



◆ ZAPAI-ZORUA



◆ LEIHOAK



◆ KONDUKTOAK



Pentekoste jaien atarian gaudenez, har ezazue nire agurrik beroena. Jaiok alaitasun eta zorionez bete gaitzatela, eguneroko eginbeharrak eta urtean zehar gainditu ditugun arazo eta gorabeherak ahaztuta.

Alkatearen agurra

Gure herriak merezi du horrenbeste.

Egun alaiak izan daitezela guretzat eta baita inguruko eta bisitatuko gaituztenentzat ere, eta arrazoi ezberdinak tarteko, gure artean izango ez diren bergararentzat bereziki; jaso dezatela eurek ere nire agurra.

VICTORIANO GALLASTEGI



BEDELKARek, jai zoriontsuak opa nahi dizkie bergarar guztiei eta **BEARTI** eskerrak eman **BEDELKAR** egunaren ospakizunetan emandako laguntzagatik eta herri guztiari emandako harrera onagatik.

Gomendioa

Asier Bolinaga 14 urte

"Bitorianatxoren jeitsieran ikustera koadrilan joaten gara, brusak airera botatzen ditugu..."

- Zer, brusa jazteko gogoarekin?

- Bai, halere arratsaldeko 17.15etan futbol txapelketaren finala daukagu eta hor jokatu ondoren Bitorianatxo ikustera joango gara. Oso ondo pasatzen dugu, kuadrila osoa joaten gara eta brusak airera botatzen ditugu, horixe da onena, juerga ederra...

- Gauez irtetzen al zarete?

- Gauez barraketara joaten gara politena zein den edo berririk ba al dagoen ikusteko. Gero musika ona baldin badago, dantzan egitera ere joaten gara.

- Ligatzen duzue jaietan?

- Ez!! (Ondoan dituen lagunek gezurra dela esaten dute...).

Aukeran

Jaiak hasi bezain laster musikak astinduko digu gorputza. Aukera ugari daukagu ostiral gauerako: Udal Musika Bandaren eskutik Bergarako ereserkia eta elkarteetako martxak entzun ahal izango dira Frontoian. San Martin Plazan Laiotz taldearekin dantzaldia izango da eta Bideberrin, berriz, rock gaua: El Inquilino Comu. Lord Sckiness eta Txokolate Revenge taldeekin.



Non Zer

19.00: Eskolarteko kiroleko finalak.

20.00: Jaiei hasiera emango zaie, etxafleru jaurtiketa eta Bitorianatxoren jeitsierarekin.

20.15: Udal Musika Bandaren kalejira, hiriguneko kaleak alaituz.

20.30: Lehengo beheko estazioko barraken irekiera.

20.30: Bideberri aldeko txoznen irekiera.



22.30: Bergarako ereserkia eta elkarteetako martxen aurkezpena Udal pelotalekuan, Udal Musika Bandaren eskutik. Eskainiko diren martxak: San Martin, Or Konpon, Umore Ona, Pol-Pol, Pix-Pol, Campeones, San Martingo Ereserkia, Pertxa, Altzasu, Bergarako Musika Eskola, La sai Toki, Oilagorra eta Bergarako Ereserkia. Alberto Gorritibereak aurkeztuko du ekitaldia.

23.30: San Martin plazan, dantzaldia Laiotz taldearekin.

23.30: Rock kontzertua, Bideberrin: El Inquilino Comunista, Lord Sckiness, Txokolate Revenge.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu jaietarako. Larunbatean, gaueko ordu batean, **manifestazioa** plazatik irtenda. Igandean, 19.00etan **bertsolariak** eta **trikitilariak** Bideberriko txoznetan. 20.00etan, **Herri kirolak**: soka-tira, txingak, saku karrerak, arraultzen jokua... 23.00etan, **Gozategi anaiak** txoznetan bertan. Astelehenean, azkenik, 19.00etan **poteo herrikoia** bertsolari eta trikitilariarekin Gestoretako txoznetatik hasita.

► Ostiral gauean Bideberrin

El Inquilino Comunista

El Inquilino Comunista taldeak kontzertua eskeinitu du gaur, ostirala, Lord Sickness eta Txokolate Revenge taldeekin batera Bideberrin. Javier Letamendia bateriak taldearen nondik norakoak azaldu dizkigu.

- Bergaran izan zineten orain 2 urteko jaietan. Zertan aldatu da El Inquilino orduetik?

- Eboluzio bat izan dugu. Musika berriak entzun eta influentziak jasotzen dituzu baina azken batean soinua eta jotzeko modua bera daukagu. Rock zaratatsua egiten dugu. Bestalde, zuzeneko emanaldi gehiago eman ditugu orduetik eta horrek esperientzia handiagoa eman digu. Baina El Inquilino izaten jarraitzen dugu.

- Zeintzuk dira lehen aipatu dituzun influentziak?

- Sonic Youth, Pavement edota Pixies eta gustatzen zaizkigu.

- Horieta batzuen telonero izateko aukera izan duzue...

- Bai, Sonic Youth, Lemonheads, Breeders eta Pavementekin jo izan dugu. Pablo Cabezaren bitartez Pavementekin jo ahal izan genuen eta hauek Sonic Youthekin jiran zeudenez, gomendatu egin zieten telonero gu aukeratzeko. Ondorengok Sonicekin lortutako arrakastaren ondorioz



Ezkerretik eskumara: Alvaro Real de Asua (kitarra, ahotsa), Javier Letamendia (bateria), Juan Losada (bajua) eta Santi Real de Asua (kitarra, ahotsa).

izan ziren.

- Zeintzuk dira zuen etorkizunerako asmoak?

- Hurrengo diskoa ateratzea [orainarte "El Inquilino Comunista" eta "Bluff" kaleratu dituzte] eta hoberako eboluzioa izatea. Eta iraila aldera Europako hainbat herrialdetan jotzea gustatuko litzazkiguke.

- Zer da *Getxo sound* delakoa?

- Los Clavos, Lord Sickness eta gu irten ginenean kazetariak asmatutako etiketa bat. Getxon beti egon dira blues, jazz edota rock taldeak

baina orain beharbada gehiago hitzegiten da horri buruz. Baina *Getxo sound* horren barruan estilo ezberdinak daude eta soinua zehatz bat baino lagun talde bat gara.

- Orain "Historias del Kronen" eta "Salto al vacio" filmeetan zuen musika entzun dezakegu...

- Lehenengoan bi kantu sartu ditugu eta bigarrenean hiru. "Salto al vacio"n gainera Alvaro (kitarra eta abeslaria) eta biok agertzen gara. Filmei dagokienez, "Salto al vacio" gehiago gustatu zait isladatzen dituen an-

bienteak eta argazkiarengatik.

- Zergatik ez zenuen RCA multinazionalarekin fitxatu?

- Australian Blonde eta El Inquilino bezalako taldeak azken aldirian modan jarri dira baina horrek oinarri solido bat zeukan ala ez, ez genuen argi. Multinazional batekin fitxatzea oso apostu fuertea zen eta Radiation Records-en jarraitzea erabaki genuen. Seilu txikia da eta konfiantza, askatasun eta kontrol handiagoa daukagu. Multinazional batean, behar bada ez genuen edukiko.

"Multinazional batekin fitxatzea oso apostu fuertea zen eta Radiation Records-en jarraitzea erabaki genuen"

Gomendioa

Aintzane Zubia 17 urte

"Larunbat gauean kanpotik jende asko etortzen da eta aukera gehiago izaten da ligatzeko"

- Zer asko ligatzen al da larunbat gauean?

- Bueno... kanpotik jende asko etortzen da eta aukera gehiago izaten da. Ez dakit, larunbata jaietako egunik martxosoena izaten da.

- Zerbait berezirik egiten al duzue?

- Kuadrila osoa elkartzen gara afaltzeko eta ondoren

tabernaz taberna ibiltzen gara edo txoznetara joaten gara.

Halere, aurten etorriko diren taldeak ez zaizkit asko gustatzen.

- Afalostean zer egingo duzue?

Han eta hemen dantzatzen ibili, ahal dena egin eta gorputzak aguantatzen duenera arte jarraitu.

Aukeran



Pelota jaialdia izaten da Pazkuetako ekitaldi garrantzitsuenetarikoa. Aurten lehen eta bigarren mailako profesionalak arituko dira frontoian. Arroyo II.k debuta egingo du eta berarekin batera, Arteaga, Koka, Oregi I, Goñi, Balerdi, Astarloa edota Bazeta izango dira. Lehen mailako profesionaletan, berriz, Etxaniz eta Zezaga bergararrekin batera, Unanue, Galarza III edota Nagore.

Non Zer

9.00: 15 urtez azpikoentzat XIV. Marrazki eta Margo Lehiaketa libre. Izen ematea Kultur Etxean.

10.00: Diana, auzoak esnatu ondoren San Martin plazan bilduz.

- Bolu auzotik Iosu eta Iokin soinujoleak.
- Oxirondo aldetik Udal Txistulari Banda.
- Labegarietatik Kobok dultzaineroak.

10.30: Mizpirualdera bisita egingo dute soinujole, dultzainero eta txistulariek.

11.30: Elkarteen arteko Sukaldaritza Lehiaketa San Martin plazan, trikitalariek alaituta.



16.30: Pentekoste feriako pelota partiduen hasiera, Udal Pelotalekuan.

- Arteaga eta Arroyo / Koka eta Oregi I.
- Etxaniz eta Tolosa / Eugi eta Galarza III.
- Ansotegi eta Galardi / Badiola I eta Oliden.

17.00: Haur jolasak, San Martin plazan, Txintxerriña elkarteak antolatuta.

19.30: Erraldoi, Kiliki eta Buruhandien kalejira, Udal Txistulari Banda, Kobok eta Bergarako Dultzainero Taldeak lagunduta.

20.00: Bonba Japoniarrak haurrentzat, San Martin plazan.

23.00: Rock kontzertua, Bideberrin: Nuevo Catecismo Catolico, 6 Nemen 9, Fucking What!

23.30: Dantzaldia Basajaun taldearekin, San Martin plazan.

► **Astelehen eta asteartean San Juanen**

Uso eta plater tiraketa

Oilagorrako Ehiza Sailak antolatuta, herriko uso eta plater tiraketa jokatuko da astelehen eta asteartean goizeko 10etan San Juanen. Ramon Iraegi Oilagorrako ki-deak tirada honen tradizioari (60 bat edizio jokatuta dira) eta tiratzaileen gorabeherei buruz hitzegin digu.

- Zein motatako tiraketak daude?

- Uso tiraketa, *bélices* deiturikoa eta plater tiraketa. Uso tiraketa zertxobait galtzen ari da nahiko garestia delako. *Hélices* izeneko modalitatea berria da eta arrakastatsua suertatzen ari da baina kontrakoak ere baditu.

Pazkuetan, berriz, plater tiraketa eta uso tiraketa egiten dira. Astearteko plater tiraketan herriko jendeak bakarrik parte har dezake.

- Zenbat partaide izaten dira?

- 50-60 lagun bilduko gara gutxigorabehera. Eta ondo gertatuta egon behar duzu. Nik behintzat beste kirol bat moduan ikusten dut eta erreflexu onak edukitzeko zure burua zaindu beharra duzu. Kontutan izan platera edo usakumea abiadura dexentez irteten direla eta perdigoiak 260 metro segunduko abiadura daukala. 30 metroko distantzian tiroarekin asmatzea ez da batere erreza.

- Zeintzuk dira gehien nabarmendu diren tiratzaileak?



Tiratzaile talde batek Cruz Orbe beteranoari 1993an Arraaten egindako omenaldiaren irudia.

- Nik lehen aritzen ziren tiratzaileak aipatuko nituzke, *eskola zabarrekoak*: Cruz Orbe, Juan Gisasola, Mauricio Arregi zena... Lehen Errege Kopara ere bergarar batek irabazi zuela aipatu behar da, Patxi Garmendiak hain zuzen ere. Eta 1936a baino lehen Bergaran jokatuta ziren Jose Antonio Agirre Lehendakariaren I. Lehiaketa eta Alcalá Zamora Errepublikako Presidentearen Trofeo Ignazio Maria Galarraga bergararrak irabazi zituen.

Orain tiratzaile asko gaude. Kontutan izan Oilagorrako ehiza sailean

400 bat lagun izango gara eta plater tiraketan ezin dezakezu asmatu nork irabaziko duen. 15-20 lagunen artean edozeinek irabaz dezake.

- Beste herri batzuetako tiradetara joaten zarete?

- Bai. Esate baterako Oñati, Zumarraga, Urretxu, Legazpia eta Bergara artean herri arteko txapelketa bat jokatzen da eta hilabete baten barruan laupabost tirada jokatzen dira.

- Afizioak gora ala behera egin du?

- Nik mantendu egiten dela esango nuke. Ehizta-

rien lege berriak examin bat egitera behartzen zaitu baina badira izena eman eta azterketa egiten duten gazteak ere. Nik azterketarena ondo ikusten dut. Probak beharrezkoak dira norma batzuk jakiteko, gidatzeko karnetarekin gertatzen den moduan.

- Zer esango zenieke tiraketan aurka daudenei?

- Ba inori kalterik egiten ez dion kirola dela. Bestalde, nere ustez gu ere ekolojistak gara mendia garbi uztea gustatzen bait zaigu, aurkitu dugun bezalaxe.

"Tiraketa beste kirol bat moduan ikusten dut. Erreflexu onak izateko zure burua zaindu beharra duzu"

► Pol-Pol Argazki Taldeko presidentea

Agustin Gurrutxaga


Pol-Pol Argazki Taldeak antolatuta, Bergara Hiria XI. Argazki lehiaketako lanak ikusgai izango dira Kultur Etxean ekainaren 11ra arte. Agustin Gurrutxagak zuzentzen duen taldeak herriko 25 argazkilari biltzen ditu.

- Argazkilaritza zaletu asko zarete Bergaran...

- Kultura mailan Bergaran jende asko dabil, hor dago pintoreen kasua adibidez. Zergatik? Ez dakit baina Bergaran antolatutako rallyetan eta lehiaketetan jende askok parte hartu izan du beti. Orain 2 urteko herriko diapositiba lehiaketan 40 lagun inguruk parte hartu zuten. Beharbada lehen Pol-Poleko Argazki Sailak antolatzen zituen ikastaroetatik dator afizioa.

- Zeintzuk dira zuen ekintza nagusiak?

- Bergara Hiria da antolatzen dugun lehiaketarik garrantzitsuenena. Beste lehiaketa batzuk (kirol argazkiena, emakumeena, argazki rallya...) eta ikastaroak ere antolatzen ditugu urtean zehar. Ikastaroak bi izaten dira, bat Jardunekin batera eta



Zabalotegiko lokaleko estudioa gero gehiago erabiltzen dute.

bestearekin kontu. Bestalde, diru faltagatik, lehengo herriko diapositiba lehiaketa ez dugu egiten gaur egun. Horretaz aparte, herritik kanpo antolatzen diren rally eta lehiaketetan ere parte hartzen dugu. Orain 2 aste, Beasainen, 5 sarietatik 4 eraman genituen.

- Asteroko bileretan

zer egiten duzue?

- Asteartero 8etan biltzen gara Zabalotegiko lokalean. Bertara edozein etor daiteke. Normalean 10-15 lagun biltzen gara eta batak besteari argazkiak erakutsi eta erabilitako teknikak edota argazki aldizkariak komentatzen ditugu.

- Nola ikasi duzue

zuek argazkiak ateratzen?

- Ba lehenbizi ikastaro bat eginenez, ondoren ikasitakoa beste kolektibo batzuetako jendearekin komentatuz, argazki erakusketak ikustera joanez, lehiaketetako epaimahaiak esaten dutena kontutan hartuz... Mundu horretan ibiliz azken batean. Garestia den? Ekipoa nahiko garestia da bai, 200.000 pta. inguru eta goi-mailako bat 500.000 pta.ra iritsi daiteke. Dirua da baina afizio guztiak bezala... Eta zenbaitetan sarien bitartez konpenzazioak lortzen dira.

- Mendiko argazkietan espezializatu al zarete?

- Benito Cantero eta ni horretan ibiltzen gara baina estilo aldetik taldea oso zabala da eta kreatibitatea lantzen saiatzen gara. Zabalotegiko estudioan ere asko erabiltzen dugu. Aurrerapusu handia izan dira Zabalotegiko estudioa eta lokala.

"Taldea estilo aldetik oso zabala da eta kreatibitatea lantzen saiatzen gara. Asteartero biltzen gara"

**AGENTZIA:
J. ELKORO**

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH
VITA
UNIBER
CAUDAL
HISPANIA
ZURICH TALDEA ASEGURUAK

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

TELAETXE E.A.

SAIL BERRIA: 95-96rako TAPIZEN ERAKUSKETA

OIHAL eta OIHAL PUSKAK

Elgetarako bidea (gasolindegitik 300 metrotara, "Cotones Agirrezabal"en ondoan).
Telefonoak: (943) 76 39 40 - 76 39 41 - 76 00 46 / Faxe: 76 56 38 20570 BERGARA



■ AUKERA HAUNDIA OIHAL ETA PUSKETAN, METROKA ZEIN PISURA.

■ EDREDOI NORDIKOAK

■ TAPIZETAN AUKERA ZABALA.

■ TAPIZEN ERAKUSKETA

■ ZETAK, KORTINAK, TOAILAK, YAKAREAK, IZARAK, TAPIZAK, E.A...

FABRIKA PREZIOTAN

LARUNBAT ARRATSALDETAN
ZABALIK (15.00-19.30)

GOIZETAN ITXITA

ONDO PASAU JAIYAK!!



LAGUN

AROZTEGIA

ATEAK

LEIHOAK

SUKALDEKO ARMAIRUAK

HORMA ARMAIRUAK

ERA GUZTIETAKO AROTZ-LANAK



Mekolalde, 5 7.
20570 BERGARA
☎ 76 08 10 (tailerrekoa)
☎ 77 02 43 (etxekoa)

► **Jaietan ezin hutsik egin**

Udal Txistulari Banda

Ramon Etxaniz (67 urte), Udal Txistulari Bandako lehen txistua, taldeko bateranoena dugu. Ramonekin batera, Amaia Lazkano (2. txistua), Iñaki Arenaza (silbotea) eta Carlos Elorza (atabala) aritzen dira. Igan-dean goizeko 8etan alborada egin ondoren, 11etan Udal Musika Bandarekin batera Meza Nagusia lagunduko dute.

- Noiz sartu zinen Udal Txistulari Bandan?

- Ez nago ziur baina 1951 urtean izan zela uste dut. Jaietako programan agertzen den argazkia 1955koa da eta bertan, ezkerretik eskumara, Bonifacio Laskurain, Joseba Laborda, ni neu, Martin Aranburu, Matias Azkarate, Bixente Retegi, Julian Etxaniz eta Miguel Mari Basterra agertzen gara. Orduetik, pentsa dezakezuen ez, aldaketa asko izan dira. Laborda hildakoan, 68an, Bixente, Julian, Matias eta neu geratu ginen eta 73an Matias-ek utzi eta bere ordez Carlos Elorza sartu zen. Horrela 1990ra arte iraun genuen eta Bixentek eta



Biribilketa, Korporazioari laguntza edota Bikoteendako dantza premioak joko ditu Txistulari Bandak.

Julianek taldea utzi zuten jarraian. Gaur egungo formazioa orain 2 urte osatu zen.

- Pazkuetakoa al da urteko emanaldirik garrantzitsuena?

- Bai, San Martzial eta San Martinekoarekin batera. Horrez gain, auzoko jaietara ere joaten gara, meza ostean jotzen dugu

normalean. Lehen, 1978ra arte, baserri baserri jotzeko zegoen ohitura galdu egin da.

- Udal Txistulari Banda desagertzeko arriskurik al dago?

- Ez dut uste sekula galduko denik. Herri barruan sartuta dago eta aktu ofizialetan zein ongi-etorrietan ezinbestekoa da.

- Nekeza al da txistua jotzen ikastea?

- Ez, musika pixka bat edukita errez ikasi daiteke. Eta zenbat eta afizio gehiago izan ba askoz hobe. Asko praktikatu behar da, hori bai.

- Noiz arte jarraitzeko asmoa, Ramon?

- Ondo nagoen bitartean...

"Ez dut uste Txistulari Banda sekula desagertuko denik. Aktu ofizialetan, ongi-etorrietan... ezinbestekoa da"



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

Fleming Dokorea, 5
☎ 76 19 94

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriadarako pinturak
- Paper margotuak
- Mokitak eta tapizatuak



Gomendioa



Luisa Gisasola 62 urte

"Gauetz ez naiz ibiltzen, pasatuta daukagu edadea gauetz ibiltzeko eta"

- Zer gustatzen zaizu gehien goiza ala gaua?

- Ni goizean irtetzen naiz kalean ze jira dagoen ikusteko eta arratsaldean ere bueltatxo bat ematen dut. Gauetz ez naiz ibiltzen, pasatuta daukagu edadea gauetz ibiltzeko eta. Ez daukat zezenetara joateko ohiturarik eta gehien gustatzen


zaidana dantzariak izaten dira, beraz domekan dantza sueltoko txapelketa ikustera irtengo naiz.

- Eta mezetara joaten al zara?

- Bai Meza Nagusira joateko ohitura daukat.

Programa jarraitzen dudana? Ez asko, gauza sueltoak ikustea gustatzen zait, kalean topatzen dudana.

Aukeran



Euskadiko txirrindulari afizionatu onenak Bergaran izango dira igandean LX. pentekotse saria jokatzeko. Aurtengoa Euskadiko txapelketa izango da. Irteera goizeko 9etarako iragarrita dago eta eguerdiko 12.30etarako lbergaraiko helmugara helduko dira. Larunbat goizean, bestalde, LIX. San Antonio Saria jokatu da 2. mailako kadeteentzat.


Non Zer

- 8.00:** Alborada Udal Txistulari Bandarekin.
- 9.00:** Entzierroa, Barrenkaletik Zezen plazaraino Biznietos de Celedon txarangak alaituta. Ondoren enbolatuak.
- 9.00:** Txirrindulari afizionatuentzako errepideko Euskadiko txapelketa. LX. Pentekoste saria.
- 11.00:** Meza nagusia San Pedro elizan, Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari bandak lagunduta. Udalbatza bertan izango da.
- 11.30:** Haur bikoteentzat Euskadiko XVIII. Dantza Askatuko txapelketaren kanporaketak plazan. Eurria bada Novedades aretoan.
- 12.00:** X. literatur lehiaketaren sari banaketa Zabalgogeko aretoan.
- 12.30:** Udal Musika Bandaren kontzertua Espaloian.
 - "Get Up". **J. Hadermann.**
 - "La italiana en Argel" (Obertura). **G. Rossini.**
 - "Mendi mendiyen" (Fantasia). **J.M. Usandizaga.**
 - "Laura" (Intermezzo). **J. Hadermann**
 - "The Lion King" (Pelikulako musika). **E. John.**
 - "Evolutions" (Allegro Brillante). **A. Reed.**
 Zuzendaria: **Alfredo Gonzalez Chirlaque.**
- 16.30:** Pentekoste ferriako pelota partidua Udal pelotalekuan.
 - Goñi eta Balerdi / Lejardi eta Bazeta.
 - Unanue eta Lasa III / Nagore eta Zezeaga.
 - Soroa III eta Astarloa / Ortiz eta Azkarate.
- 17.30:** Biznietos de Celedon txarangak eta Elgoibarko dultzaineroek alaituta kalejira San Martin plazatik Zezen plazaraino.
- 18.00:** Zezen festa, Beheko estazioko zezen plazan. Juan Diego eta Francisco Marco Oyarzabal arituko dira. Sobresalientea: Ruben Delgado.
- 18.00:** Euskadiko XVIII. Dantza Askatuko txapelketa San Martin Plazan, Udal Txistulari Bandak alaituta.
- 19.00:** Biznietos de Celedon txarangaren kalejira.
- 22.00:** Suzko zezena San martin plazan.
- 24.00:** Nueva Alaska taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

► **Igandeko txekorketako protagonista**

Francisco M. Oyarzabal

Francisco Marco Oyarzabal naparrak (17 urte) bigarren aldiz toreatuko du igandean Bergaran. Iazko arrakastaren ondorioz (3 belarri eraman zituen), aurten ere bergarar zalegoari bere mailarik onena erakusteko prest azaltzen da.



Francisco Marco Oyarzabalek toreo figura izan nahi du.

- Nola hasi zinen torero munduan?

- Nere aita toreroa izan zen eta 8 urterekin, tentaderoetara joanez, toreroen mundu hori ezagutzen hasi nintzen. Barruraino sartu zitzaidan zaletasuna eta mutiko nintzela mendian bigantxak toreatzen hasi nintzen. Hasiera batean jolas moduan baina segituan konturatu nintzen toreo-izar bat izan nahi nuela. Mendebian egin nuen debuta eta ordutik progresioa izan dut; gero eta txekorketa gehiago toreatzen ditut.

- Nola definituko zenuke zure estiloa?

- Edozein gauza egiteko kapaz naizelakoan irtetzen naiz zezen-plazara. Toreo-figura izan nahi dut eta txekorketa guztietan hori demostratzen saiatzen naiz. Nere bertute nagusia ausardia litzateke. Defektuak? Ni bezala-

ko gazte batek asko ditu. Kontutan izan oraingo figurek ere badituztela.

- Zein eritzi daukazu Bergarako zalegoari buruz?

- Bueltatzeko gogoz nengoen eta nere apoderatuak Bergaran toreatuko nuela esan zidanean

oso pozik jarri nintzen, ilusio handia daukat. Bergaran gainera toreo-munduaz badakite. Lehengo urtean 3 belarri lortu nituen eta denboraldi hasiera zenez, ezpata-gatik ez nuen sari gehiago lortu. Baina oso pozik geratu nintzen iaz Berga-

ran egindakoaz.

- Pikatzailerik gabe hobeto?

- Hori eskaloi modukoa da: lehenik bigantxekin hasten zara, gero pikatzailerik gabeko txekorketekin, pikatzaileekin jarraian eta azken pausua matadorea izatea litzateke. Bakoitzari bere denbora eman behar zaio eta, pausuz pausu bide onetik noala uste dut.

- Zein torero gustatzen zaizkizu?

- Guztiei errespeto handia diet. Torero janztea bakarrik izugarriko meritoa da. Dena den, orain maila haundiko torero asko dira. Zenbaitzuk aipatzekotan, Enrique Ponce, Joselito edota Manzanaresekin geratuko nintzateke.

- Ba al dakizu Bergaran zezenketen kontrako talde bat dagoela?

- Ez nekien. Bakoitzak nahi duena pentsa dezake. Dena den, ez bazaie gustatzen ez etortzeko esango nieke, besterik ez.

"Edozein gauza egiteko kapaz naizelakoan irtetzen naiz zezen-plazara. Oso ausarta naiz"



zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilazkoak

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

► Zezenenganako errespeturako taldea

Txekorketaren aurka

Orain dela hiru urteko Pazkuetan Zezenzaleak taldeak txekorketa lehen aldiz antolatu zue-nan, kontrako ahotsak entzun ziren herrian. Zezenenganako Errespeturako Batzordeak biltzen ditu txekorketa- ren aurka daudenak.

- Zergatik zaudete igandeko txekorketaren aurka?

- Gu ez gaude zezenen aurka, alde baizik. Gu zezenak hiltzearen aurka gaude. Edozeini, gizakume edo abere, tratu txarrak egitearen kontra gaude. Entzierroen aurka ez gaude. Ulertzen ez duguna da Udalak hartu duen postura, Bergarako herriak ez du zezenketarik eskatzen, talde konkretu batek eskatzen du, baina beste asko aurka gaude eta ez dugu ulertzen nola bultzatzen duen Udalak jai hori. Ez diogu esplikazio lojikorik ikusten. Etika kontua da.

- Hala ere aurreko urteetako txekorketan zezen plaza bete egin da...

- Jaietan plaza betetzea oso zaila ez da. Kalimotxoaren, zerbezaren edo porroaren eguna jarriko bage-nu, arrakasta edukiko ge-



"Edozeini, gizakume edo abere, tratu txarrak egitearen aurka gaude".

nuke eta edozein areto beteko genuke. Baina Udalak ez luke bultzatuko, ez luke promozionatu behar, beste gauza batzuen artean jende askok kontra egingo zukeelako. Bakea, elkarrenganako errespetua, izadiarenganako errespetua eta horrelako baloreak bultza-

tzen ari gara eta gero instituzioetatik, derrepentean, zezenari tratu txarrak eragiten dizkion jai bat bultzatzen du. Bakoitzak afizio eta gusto ezberdinak ditu eta zezenketen zaletuak badaude, baina Udalak, denok ordezkatzeko gaituen instituzio batek, horrelako

postura hartzea ez dugu bidezkoa ikusten. Ez da herria baketzeko eta kultura bultzatzeko bidea.

- Firma bilketa ere egin zenuten orain dela hiru urte.

- Bai eta 2.400 inguru batu ziren. Ez da lau katuren kontua. Estatu mailan egin zen inkesta batean, %72a zezenketen aurka azaldu zen.

- Udaletxeko obrak amaitu diren arren, zezen plaza portatila montatu da aurten ere. Zer deritoxue horri?

- Argi ikusten da interes batzuk daudela eta orain dela hiru urte Udalak eman zituen esplikazioak aitzakia- ak besterik ez zirela.

- Udaleko ordezkari- kin egon zarete?

- Eskaera bat egin ge- nion Udaleko Kultur Batzordeari orain dela hilabete t'erdi inguru, baina erantzunik ez genuen jaso. Al- derdi guztien atea ere jo ditugu, baina ez digu inork erantzun, eta aurten ere txekorketa antolatu da.

"Udalak, herritar guztiak ordezkatzeko dituen instituzioak, zezenketak bultzatzea ez da bidezkoa"

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

► Egan taldekoak zirenek osatzen dute

Martitzenerako... Trabuko

Egan desagertu ondoren talde horretako bost kidek Trabuko taldea sortu dute eta urtero bezala Pazkuetan izango ditugu herriari martxa emateko prest azpeitiarrak.

- Noiz sortu zenuten Trabuko taldea?

- Aurtengo urtarrilaren 5ean. Lehen Eganen genbiltzan 6 lagunetatik 5ek jarraitzen dugu.

- Nondik dator Trabuko izena?

- Talde berria egiterakoan izen berria jarri behar izan genion eta beti gertatzen den bezala zerrenda luzea genuen aukeratzeko. Azkenean Mikel Laboaren "Goizuetako Trabuko" abestitik hartu dugu izena.

- Zergatik banatu zen Egan, Trabuko eta Egan Berrian?

- Duela 10 edo 11 urte Eganeke abeslaria izan den Xabier Saldiasek, guk ezer jakin gabe, Madrilera joan eta han Egan bere izenean erregistratu zuen. Taldekideen arteko harremanak Saldiasekin ez ziren batere onak eta azkenean banatzea erabaki genuen elkarrekin 25 urte pasa ondoren. Orain epitegiatar eraman dugu arazoa, zeren Saldiasek hartu du Eganen izena eta guk nahi duguna izen hori inorentzat ez izatea da. Bakoitzak bere bidea hartu du eta horregatik berak ere izen berria jarri diezaioa bere taldeari. Egan izena "enterratu"



Xabier Saldias izan ezik, Eganen zeuden beste guztiek Trabuko taldea sortu dute. Ezkerretik hasita, goian, Koldo eta Imanol. Behean, Gonzalo eta Peke anaiak eta Alberto.

egin nahi dugu.

- Ze musika mota jotzen duzue orain?

- Danetik jotzen dugu, beti ere erromeria estiloa galdu gabe. Disko bat grabatu dugu guk egindako bost abestirekin eta halaber, betiko jendearentzat jotzeaz gain, gazetxoentzat ere badugu abesterik. Ibilaldirako ere abesti bat bidali genuen eta antolatzaileei asko gustatu arren Exkixurena aukeratu dute, Bergaran danetik joko dugu, baladak, trikritixak, countrya, rocka, etb. Gainera asko

mugitzen ari gara propaganda eginez irratian, telebistan eta egunkarietan. Abesti berriez aparte, eszenatokiko muntaia ere erabat aldatu dugu, teloi berria eta kea sartu ditugu.

- Zenbat denbora iraungo du Bergaran eskeiniko duzuen kontzertuak?

- Gutxi gora behera 4 ordu inguru eta segun eta ze jende mota dagoen egokitu egingo dugu errepertorioa.

- Bergaran betidanik izan duzue harrera

ezin hobea...

- Bai urte asko daramatzagu Bergarako astearteetan jotzen, 20 bat urte izango dira, eta ez hori bakarrik, Txibiston, Potzuan eta Frontoian askotan jo izan dugu. Erregetako bezperan ez genuen Bergaran hutsik egiten. Otañoren kuadrilak eta oso harrera ona egiten ziguten. Halere gaur egun asko aldatu da, jende gazteak nahiago izaten du tabernaz taberna ibiltzea eta dantzaldietan ez da lehen beste jende biltzen..

"Abesti berriez aparte, eszenatokiko muntaia ere erabat aldatu dugu, teloi berria eta kea sartuz"

Gomendioa



Juanito Juaristi 49 urte

"Aurten kanpora joango naiz, emazteak oporrak ditu eta berak agintzen duenez..."

- Jaietan izango al zara?

- Ez, aurten kanpora joango naiz emazteak oporrak ditu eta..., noski botako ditudala faltan jaiak, baina emazteak agintzen duenez...

- Zer egitea gustatzen zaizu astelehenetan?

- Lehen plazan sokamuturrera joaten nintzen, baina orain

egiten duten entzierroa ez zait batere gustatzen, partaidetza gutxiago baitago. Sokamuturraren ondoren salda hartzera Antxoninera edo Eusebionera joan eta gero, Bandak eskaintzen duen kontzertua entzuten dugu. Ondoren pote batzuk hartu eta arratsaldean siesta egin edo pelota partiduetara joan.

Aukeran



Zezena dator arkupetik, sua dario adarretik, kea, kea, Santana kaletik... Ez, zezenak ez du sua adarretatik ekarriko, baina abiada batean igoko da Barrenkale eta Bidekurutzetatik gora Beheko estazioko zezen plazaraino. Ausarta bazara, hartu periodikoa eta jarri txekorraren aurrean, zezen plazaraino ailegatzen bazara, ondo txuliatzeko aukera izango duzu.

Non Zer

8.30: Kalejira, Los Incansables txarangak alaituta.

9.00: Entzierroa, Barrenkaletik Zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.

11.30: Arratsaldeko ordu baterdiak arte Seminarioko patioan haurrentzako Jolas Parkea: karrak, gaztelu puzgarriak, etabar.

11.30: Arratsaldeko ordu biak arte barrakak haurrentzako prezio berezietan izango dira.



11.30: Eskoriatzako Musika Bandaren kalejira.

12.30: Eskoriatzako Musika Bandaren kontzertua, Espoioian.

- "Gloria al pueblo" (Pasodoblea). **P. Artola**
- "Las Bodas de Figaro" (Obertura). **W. A. Mozart**.
- Duke Ellington in concert.
 - In a sentimental mood.
 - Solicitude.
 - Caraban.
- "Gigantes y cabezudos" (selek.). **M. F. Caballero**.
- "Para Theme (Gone with the wind)". **M Steiner**.

16.00: Iluntzeko zortziak arte, Seminarioko patioan jarritako haurrentzako Jolas Parkearen jarraipena.

16.30: Pentekoste ferriako pelota partidua, Udal Pelotalekuan.

18.00: Herri Festa, Los Incansables txarangak animatua, Zezen plazan.

20.00: Los Incansables txarangaren kalejira.

23.00: Tarantella Kanp Musikarekin dantzaldia, Espoioian.

23.30: Rock kontzertua, Bideberrin: Balerdi Balerdi, Menphis Belle, Daxka.

Bergarako himnoa

Gaur aurkeztuko da elkarteetako martxekin

Udal Musika Bandak eta 350 herritar inguruk, Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean, Bergarako Ereserkiaren aurkezpen ofiziala eskeiniko dute gaur gaueko 10.30etan Udal Pelotalekuan.

Aurreko astean Musika Eskolan eginiko entsaiura 350 bergarar aurkeztu ziren. Alfredo Gonzálezek adierazi digun bezala, "adin ezberdinetako 50 bat lagunekin entsaiatu genuen lehenbizi: Jubilatuen abesbatzeko kideak, nagusiak edota gazteak zeuden. Ondoren herriko ikastetxe ezberdinetako 300 bat gaztetxorekin egin genuen proba. Oso gustora gertatu ginen, guztiak oso ilusionaturik zeuden eta ikasita zeukaten dagoneko ereserkiaren letra".

Ereserkia Bandak joteko egina badago ere bertso ezberdinak izango dira beste taldeek jo dezaten. "Bai, horrela da, abesbatza ezberdinak,

Orkesta edota Udal Txistulari Bandarentzat bertso egokituak egingo dira" azaldu digu Alfredo González Chirlaquek, bandako zuzendariak.

Elkarteetako martxak

Gaurko emanaldian, ereserkiak gain, herriko zenbait elkarteren martxak ere joko ditu Udal



Bergarako ereserkia Udal Musika Bandak eta herritarrez osatutako abesbatz batek eskainiko dute. Argazkian, joan zen astean hainbat herritarrek burutu zuten entsaiua.

• PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA.

• LOGOPEDIA, LOGOFONIATRIA:

**AHOTS, HIZKETA ETA LENGOAIA
ZAILTASUNEN BIRGAITZEA ETA LARINGEA
KENDUTAKOEN BIRGAITZEA.**

CEDICO, Koop. Elkarte

Herri Lagunak, 1 behe (Seminarioko patiotik sarrera) ☎ 76 14 80

Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal



**ESKUALDEKO
ZENTRUA
BERGARA**

Simon
Arrieta, 3

Gorka

**OINETAKOEN
KONPONKETA**

Mota guztietako
konponketak
Bizkortasuna eta
garantia osoa

Usoa Pub



☎ 76 38 57

Irala, 1

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



Udal Musika bandak Udaletxearen inaugurazio ekitaldian Pleno Aretoa aurkeztu zen lehen aldiz jendaurrean.

Musika Bandak. . Martxa guzti horiek biltzen dituen kasetea (1.000 pezeta) eta disko konpaktoa (1.500 pta.) emanaldia hasi baino ordu bete lehe-

nago eta ordu bete beranduago erosi ahal izango dira Frontoiko takilan. Diskoaren eta kasetearen azala Miguel Okinak egindakoa da.

"Ereserkia Bandak joteko egina badago ere, Orkestak edota Txistulari Bandak jotzeko ere egokituko da"

Sarrera doan

Gaurko kontzerturako sarrera doanekoa izango da eta Alfredok aurreratu digunez, *"ostiral gauean izango den jaigiroa kontzertu izanik kontzertu laburra egin nahi dugu, ordu bete eta laurden ingurukoa. Kontzertu atsegingarria gertatzea da gure helburu nagusia"*.

Bestalde, emanaldian zehar, elkarte ezberdineei buruzko zehaztasunak emango ditu Alberto Gorritiberea aurkezleak.

Herriko elkarteen historia liburu batean bilduta

Honekin loturik herriko elkarteen historia bilduko duen liburua egiteko asmoa dago. Bertan elkarte jaiotza, ibilbidea, aktibitateak eta beste hainbat datu jasoko lirajteke.

OSTIRALEAN ESKAINIKO DIREN MARTXAK

- **San Martin**
Moldaketa: M. Glez. Bastida.
- **Or-Konpon**
Ramon eta Miguel Glez. Bastida. Letra: Carlos Loidi.
- **Pol-Pol**
Miguel Glez. Bastida / Ignacio Eizmendi "Basarri".
- **Pix-Pol**
Miguel Glez. Bastida.
- **Campeones**
Miguel Glez. Bastida / Valen Moñux.
- **San Martingo ereserkia**
Sagastizabalen musika eta letrarekin.
- **Pertxa**
Miguel Glez. Bastida / Pedro Jose Eguren.
- **Altzasu**
Miguel Glez. Bastida.
- **Bergarako Musika Eskola**
Alfredo Glez. Chirlaque / Manu Díaz.
- **Lasai-Toki**
Alfredo Glez. Chirlaque / Valen Moñux.
- **Oilagorra**
Alfredo Glez. Chirlaque / Jesus Egileor.
- **Bergarako Ereserkia**
Alfredo Glez. Chirlaque / Juan Martin Elexpuru.



CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A. Aseguru artekari eta aholkulariak

Aseguruak:

- ETXEA
- KOMUNITATEAK
- ENPRESAK
- AUTOMOBILAK

Erantzunkizun zibila:

- SUTEAK
- ISTRIPUAK

Bestelakoak:

- MEDIKUNTZA
- PRIBATUAK
- JUBILAZIO
- PLANAK

Kontsulta egiguzu: inolako konpromezurik gabe aholkatuko zaitugu

BEGOÑA EZKURRA PEDROSA. Fleming Dokorea 3, behea
Tfnoa: 76 15 24 • Faxe: 76 15 24

JUAN JOSE IRIGOYEN REGUERO. Juan Gisasola 6, behea
Tfnoa: 70 29 98 • Faxe: 70 29 98

ARDATZA

Brikolaketa

- KOADROEN ENMARKAZIOA
- ESKULANAK
- Torneatuak
- Erretxina
- Kutzak
- Pertxeroak
- Pinturak (kristala eta akrilikoa)
- ATEAK
- KIT ALTZARIAK



DENDA: Masterreka, 4 ☎ 76 18 93 AROZTEGIA: Masterreka, 18

AB

Altzairu
fundizioa
eta
egituretako
perfilen
laminazioa

**ALTOS HORNOS
DE BERGARA S.A.**

Ibarra kalea, 6
Telefonoa: 76 19 40
Faxa: 76 52 43
Postakutxatila 5. 20570 BERGARA.

winterthur



Winterthur-ek zure aseguru-beharrentzako aukera zabala eskaintzen dizu:

Pertsonen babeserakoak

Pertsonen istripuetarako aseguria
Jubilazio plana
Pentsio planak
Bizi aseguria
Zirugia eta ospitaleratze aseguria
Aurrezki-inbertsio aseguria

Ondarearen babeserakoak

Etxe-asegurua
Merkatal aseguria
Automobil aseguria
Itsasontzientzako aseguria

Zure esanetara gaude.

Segurari, C.B. Zurradero kalea, 6 20570 Bergara Tfnoa: 76 17 40



► **Astelehen eta asteartean kaleak alaitzen**

Incansables txaranga

Los Incansables txaranga 20 urte daramatza etengabe jaietara etortzen eta nola ez aurten ere izango ditugu kaleko giroa berotzen. Astelehenean eta asteartean zehar egun osoan izango baitira herriko hainbat tokitan.

- Ze musika mota egiten duzue?

- Danetik pixka bat, baina hemengoa batez ere. Arin-Arina, Fandangoa, Kalejira, Mexikarrak, Balsak, Cha Cha Cha etb. Beti ere kaleak girotzeko musika egiten dugu.

- Pazkuetako jaiak ez dira aspaldian Los Incansables barik ospatu, noiztik etortzen zarete Bergarara?

- Ziur ezin diezazuket esan, baina azkenengo 20 urtetan edo ez dugu hutsik egin Bergarako jaietara. Izan ere, ez da pelota sartzeko, oso ondo hartzen gaituzte Bergaran. Nabaritzen da zuen herrian musikari arreta handia ematen zaiola eta guretzat herri hoberenetakoa da.

- Ze egunetan izango zarete gure artean?

- Astelehenean eta asteartean egun osoan izango gara jotzen. Goizeko



"Bergaran ospatzen dituzuen San Martzialak harrigarriak dira".

9etan diana egingo dugu, eguerdian ere kaleak alaituko ditugu eta gauetz plazako kontzertuaren atsedendian ere izango gara.

- Ez al da gogorra egiten egun osoan zehar kalez kale ibiltzea?

- Bai gogorra izaten da. Baina jendea anima-

tzea lortzen badugu errazago eramaten da. Eguerdi eta arratsalde partean helduak eta haurrak hurbiltzen zaizkigu gehienbat, baina gero gauetz, denetarik ibiltzen da gurekin.

- Jaiarik jai ibiltzen zaretenez, zeintzu dira jotzeko gehien gusta-

tzen zaizkizuen jaiak?

- Ezin daiteke esan, baina harrigarria iruditzen zaizkigu Bergaran ospatzen dituzuen San Martzialak. Oso giro polita izaten da erromerian eta gainera jeitsiera bikaina izaten da, uste dut paregabeak direla San Martzialak. Halere guretzat nahiko gogorra izaten da jeitsiera, baina jendeak daraman "martxa"rekin primeran pasatzen dugu.

- Zela sortu zen Los Incansables taldea?

- Leitza eta Tolosa inguruan sortu zen. Bertako bandetan jotzen zuten batzuk jaietan parranda egiten zuten bitartean instrumentuak hartu eta jotzen hasten ziren. Orduan pentsatu zuten jaiarik jai ibiltzeko talde bat sortzea eta ordutik hona berrikuntzekin bada ere jarraitu dugu. Gainera aurten Zilarrezko Eztaiak betetzen ditugu.

- Zenbat zarete?

- Gaur egun 9 musikarik osatzen dugu taldea.

"Nabaritzen da Bergaran musikari arreta berezia ematen zaiola eta guretzat herri onenetakoa da"



**JAI ZORIONTSUAK
IZAN DITZAZUELA**



*Zure
Opari Donda
Bergara*


Barrenkale, 27



Gomendioa

J. Narbaiza
38 urte

"Astearte gaueko afaria sekulakoa izaten da: rantxerak, Incansables..."



- Astearte gauerako afaria prest?

- Bai, aurreko egunetan familiarekin Arantzazu ingurura joango naiz eta astearte eguerdirako etorriko naiz. Arratsaldean umeekin barraketan ibiliko naiz eta gero gauean kuadrilarekin Antxonira joango naiz afaltzera.

- Afari "musikalak" ez?

- Lehen astelehenetan kuadrila osoa elkar-tzen ginen bazkaltzeko, baina orain haurrak direla edo bestea dela afaria egiten dugu bakarrik. Primerako giroa izaten dugu, han izaten dira Los Incansables txaranga-koak eta Trabuko taldekoak ere bai eta afalostean sekulako giroa izaten dugu rantxerekin...

Aukeran



Martitzena kuadrilen eguna izaten da. Herriko jatetxe eta elkarte guztiak kuadrilez beteta izaten dira bazkalorduan. Aurten, aspaldiko ohitura bat berreskuratu dute JARDUNeko Gazte taldekoek eta Olinpiada Batzordekoek, hain zuzen ere Herri Bazkariarena. San Martin plazan izango da eta paella erraldoia prestatuko da. Ondoren jokuak, trikitilariak eta abarrak egongo dira.

Non Zer

- 8.30:** Kalejira, Los Incansables txarangak alaituta herriko kaleetan zehar.
 - 9.00:** Entzierroa Barrenkaletik Zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.
 - 10.00:** Oilgorra elkarteak antolatutako Plater Tiraketa, San Juan auzoan.
 - 11.30:** Arratsaldeko ordu baterdiak arte, Herri Trenaren ibilera, Fraiskozuri plazatik irtenda.
 - 12.00:** Aranzadi Ikastolako dantza taldeen erakustaldia. Txakarrankoa, banakoa, zinta dantza eta beste hainbat dantza erakutsiko dute.
 - 13.30:** Olinpiada Batzordea eta JARDUNek antolatutako poteoa. Ondoren bazkaria eta jokuak.
 - 14.30:** Herri Bazkaria kuadrilentzat, San Martin plazan. Menua: bertan egindako paella. Trikitilariak alaituko dute ekitaldia. Ondoren, jokuak.
 - 16.30:** Pentekoste feriako pelota partiduen finalak, Udal Pelotalekuan.
 - 2 mailako profesionalen txapelketako finala.
 - Lehen mailako profesionalen txapelketako finala.
 - Kalonge eta Alberdi III / Oregi II eta Andueza V.
 - 17.00:** Gaueko bederatziak arte Herri Trenaren ibilera.
 - 18.00:** Arratsaldeko zortziak arte JARDUN Elkar-teak antolatutako Brusa Lehiaketako brusa, argazki eta esaldi guztiakin erakusketa, San Martin plazan.
 - 18.30:** Kuadrilentzako jokuak zezen plazan, Los Incansables Txarangak alaituta. Ondoren kalejira.
- Xafre eta Zaharra eta Izaro eta Jon trikitilari bikoteek eta Los Incansables txarangak kaleak alaituko dituzte egun guztian zehar.
- 22.00:** Dantzaldia Trabuko taldearekin, San Martin plazan.
 - 24.00:** San Martin plazan elkartzea, eta Bitoriana-txoren igoera.

► **Koadrilentzako IV. Brusa Lehiaketa**

Jantzi brusa eta kalera

Jarduneko Gazte Taldeak Brusa Lehiaketaren IV. edizioa antolatu du aurtengo Pazkuetan. Gazte Taldekoek herriko koadrila guztiak animatu nahi ditu beren brusa dotoreak jantzi eta lehiaketan parte hartzeko.



Sari banaketa Pazkuetako asteartean egingo da.

- Zein erantzun izan duzue aurreko edizioetan?

- Bastante ona baina urtetik urtera jende gehiagok parte hartzea gustatuko litzaiguke. Iaz 12 koadrila izan ziren lehiaketan eta gehienak 14 urtetik beherakoak ziren. Batez ere adin horretatik gorakoak animatzea falta da. Gure ustez giro polita sortu daiteke.

- Zein sari izango dira irabazleentzat?

- Aurreko urtean bezala bi talde bereiztu ditugu: 14 urtera artekoak eta hortik gorakoak. 14 urtera arteko koadrila edo lagun talde irabazleak 15.000 pezeta irabaziko ditu, bigarrenentzat 12.000 pezeta izango dira eta hirugarrenek 10.000 pezeta eramango dituzte. Eta 14 urtetik gorakoentzat sariak 30.000 pezeta, 20.000 eta 10.000 pezetakoak di-

ra. Jendea parte hartzera animatu nahi genuke, sari bikainak dira eta, jaiak primeran pasatzeko modukoak.

- Zein da irabazteko errezeta majikoa?

- Brusa baino, parte hartzen duten koadrilek aurkezten duten argazkia

eta jaien eta euskararen inguruko esaldia izango dira kontutan. Argazkia ateratzerik izan ez dutenei nahi izanez gero geuk aterako diegu argazkia, ostiralean 6etatik 8etara Plazan. Sari banaketa, berriaz, asteartean 7etan Plazan egingo da.

- Koadrilek lehen beste erabiltzen dituzte brusak?

- Ez dakigu, zaila da hori esatea. Argi dagoena zera da: gaztetxoek gehiago bizitzen dutela brusa janztearena. Gainera hazten doazenez nagusien artean baino aldaketa gehiago ikusten da urtez urte. Gure ustez ilusio gehiago daukate. Baina nagusietan ere antzera erabiltzen da.

- Jaietarako beste ekitaldirik antolatu duzue?

- Asteartean Plazan egingo den bazkari herrikoia antolatu dugu Olinpiada Batzordearekin batera. Izen-ematea Arrano eta Pol-Pol tabernetan egin daiteke 1.000 pezetaren truke eta gustatuko litzaiguke bazkarira ere koadrilak etortzea giro polita izango da eta. Bestalde, jaietan debalde banatuko diren pegatina batzuk atera ditugu. Lema zera izango da: "Ein da ein eta gustorau".

"Brusa baino, koadrilen argazkia eta jaien eta euskararen inguruko esaldia hartuko dira kontutan"

Ondo pasau jaiak!!

MEKOLALDE

☎ 76 50 18

Taberna

Mekolalde

CAMACHO

**Drogeria
Usaindegia**

Bidekurutzeta, 24 BERGARA

☎ 76 13 35

Musikaren gainean

Herriko lau musikarirekin mahaingurua

Bergaran uneotan ez dago musika mugida handiegirik. Talde gutxi dago eta ia denek doinu gogorak jotzen dituzte. Taldeen egoera eta lana nolakoa den jakin nahian, musika hurbiletik bizi duten lau lagunekin elkartu eta euren iritziak jaso ditugu.

Une honetan talde asko dago Bergaran?

- **M.K.:** Daxka, Fucking What, Memphis Belle, Angiolillo, Txokolate Revenge, Old Boys Quintet... Oro har, musika gogorra egin arren, bakoitzak bere ezaugarriak ditu, musika desberdina da.

- **A.E.:** Egia esan, ez dago mugida handirik.

- **A.A.:** Taldeak sortu eta desegin egiten dira, zenbait jende talde batek bestera dabil, eta horiek dira jarraitzen dutenak.

- **M.B.:** Ari dira berriak ateratzen, baina hemen badirudi musikan aritze-

ko talde bateko partaide izan behar duzula eta nire ustez, beste era batera ere jo daiteke: batean lagun batzuekin joaz, hurrengoan beste batzuekin, talde batera eta estilo batera mugatzeke; ez dago talde batean zertan egon.

- **Zergatik ez dago mugidarik?**

- **M.K.:** Gustatzen zaiugulako jotzen dugu, hobbyagatik, ez profesionalak izan nahi dugulako. Batzuek denbora librean palan jokatzen dute edo bizikletaz ibiltzen dira, guk musika egin eta jotzen dugu.

- **A.E.:** Zaila da taldeak ateratzea. Jende gaztea dabil taldeetan, ikasten ari gara, beste zeregin batzuk ere baditugu, eta jakina, musikari gogor heltzeko ez dugu astirik. Gainera, lokala behar da, instrumentuak garestiak dira...

- **Taldeen artean badago harremanik?**

- Denok ezagutzen dugu elkar, instrumentuak eta elkarri uzten dizkiogu; noiz edo noiz jo izan dugu elkarrekin, baina ez dugu aparteko harremanik.


- **Mailarik badago?**

- **A.A.:** Nik uste dut ez




MIKEL BERASATEGI

24 urte. Tabernaria. Zastada eta Spok taldeetan ibilia. Gitarra jotzen du. Bandan eta orkestran flautajole izan da. Denetarik gustatu eta entzuten du: Living Colour, Faith no More, Steve Ray Vaughan, Eric Clapton. Hala ere nahiago du jotzea entzutea baino.




MIKEL KAREAGA

19 urte. BIT bukatzen ari da. Urte mordo bat dela sortu zen eta oraindik ere bizirik dirauen Daxka taldeko eta Soraluzeko Bost Axola taldeko abeslaria da. Gehien zarata gustatzen zaio eta talde batzuk aukeratzekotan, Poison Idea, Escombros, BAP, Anestesia e.a.



AITOR ARANBURU

31 urte. Madrilgo Molestones (orain izena aldatzekoak dira) taldeko partaide da eta Musika eskolan perkusioa erakusten du. Bateria jotzen du, pianoa pixka bat. Denetarik gustatzen zaio, baina talde batzuk aipatzekotan: Pearl Jam, Pretenders, Spin Doctors...



ASIER ELORZA

23 urte. IVEF ikasten ari da. Fucking What-eko eta Old Boys Quintet jazz taldeko partaide, Udal Musika Bandan eta Orkestran Sinfonikoan ere jotzen du. Gitarra, baxua eta tronpeta jotzen ditu. Jazza du gustokoa, batez ere Wynton Marsalis tronpetajolea.

dagoela prestakuntzarik eta gero ezagun izaten da. Nire ustez, akademia eta eskoletan musika modernoa erakutsi beharko litzateke. Iparrameriketan horregatik ateratzen dira hainbeste talde. Hala ere, duela urte batzuk baino talde gutxiago baina hobek daude, dudarik gabe.

- **M.K:** Nire ustez ere maila hobea dago. Lehenengo jendeak jarraitzen dugu, baina talde desberdinetan eta ikasten goaz.

- **A.E:** Bai, jende asko lehendik gabiltzanok gara, eta jakina, gehiago ikasi dugu eta bilakatzen eta hobetzen goaz.

- **Oro har, nola ikusten duzue musika EHn eta Bergaran?**

- **M.B:** Oso zirkuito itxia dago, bakarrik gazteak daude eta estilo aldetik oso mugatuta dago. Musika entzuteko ez dago lekurik eta oso garrantzitsua da beste batzuek egiten duten lana zuzenean entzutea, oso desberdina baita diskoan eta zuzenean entzutea.

- **A.E:** Oso irteera gutxi dago, hemen batez ere musika gogorra egiten delako. EHn ezin duzu bestelakorik egin, talde poperoek hemen ez dute zereginik.

- **M.K:** Barricada, Ne-gu eta horrelakoak kenduta zaila da mugak gainditzea.

- **A.A:** Nire ustez, EHn dagoen sormen maila estatuan beste inon ez dago. Oso ideia onak daude, erabat aintzindariak dira talde asko, baina hizkuntza da oztopoa. Gazte-leraz kantatzen dutenek kanpoan arrakasta dute, berdin da musika gogorra ala poperoa egin, hor



"Hizkuntza oztopoa da EHtik irtetzeko. Duncan Dhu, 21 Japonesas, Barricada, Tahures..., gazte-leraz kantatzen duten taldeak dira eta arrakasta izan dute".

"Bergaran ez dago mugida haundiegirik: musikan gabiltzanok gazteak gara, ikasten ari gara, instrumentoak garestiak dira. Hobbya da" ASIER ELORZA

daude, esaterako, Duncan Dhu, Tahures, Barricada...

- **M.B:** Nire ustez, herri txikietakoa gertatzen da: batzuk instrumentuak jotzen hasten dira eta jendeak taldetzat hartzen ditu, eta baliteke artean ezer ez izatea, jotzeko elkartzen diren lagun batzuk baino ez. Bi aldiz entsaiatu orduko taldearen izena zein den galdeztzen hasten da jendea eta oraindik ez dago talderik eta ezer.

- **Estilo aldetik bilakaerarik, aldaketarik**

izan al da?

- **A.E:** Bai, gizartea aldatzen ari den heinean gure musika ere aldatzen doa. Kantuak sentimentuen araberakoak dira, sentimentu horiek aldatzen doaz eta kantuetan eragiten dute.

- **M.K:** Partaide bakoitzak bere jotzeko era du, nortasun bat ematen dio, eta taldean partaide aldatuak bat izaten bada, jotzeko era aldatu egiten da, soinu desberdina ateratzen da.

- **A.A:** Hala ere, aldatuak izan arren, talde-

ren nortasuna eta soinua beti gordetzen da.

- **Noiz eta nola entsaiatzen duzue?**

- **M.K:** Guk entsaiatzen dugu. Musika hobbya da eta denbora dugunean lokalera joaten gara. Nahiz eta beste taldekideak lokalean ez egon, zure instrumentua jotzen duzu, probak egin...

- **A.E:** Guk beste zeregin batzuk ere baditugu eta ez dugu behar beste entsaiatzen. Entsiatu eta jotzeko lekuak bilatu beharrean, deitu ostean hasten gara jo ta ke en-

"Euskal Herrian oso zirkuito mugatua dago eta guk, Bergaran gaztetxerik ere ez dugu. Gaztetxea behar dugu gure musika ezagutarazteko eta beste batzuk jotzen ikusiz ikasteko" MIKEL KAREAGA

tsaiatzen eta kontzertua prestatzen.

- **A.A.:** Nik uste taldeetan oso disziplina gutxi dagoela. Talde bat ona izateko ez dago instrumentista onak izan beharrik, soinu ona atera behar da: kantuak egituratu, ez behin eta berriz hasieratik bukaerara arte jo, baizik eta aztertu zer dagoen ondo zer gaizki...

- **Kontzertuetan herriarrek nola hartzen zaituztete?**

- **M.B.:** Jendea kontzertuetara ez da joaten musika entzutera, ondo pasatzera baizik. Musikari ez dio garrantzirik ematen eta gogorra da, ze jotzen ari den taldeak horra iristeko gogor lan egin behar izan du.

- **M.K.:** Ezagutzen gaituztelako baino ez dira

"Prestakuntzarik ez dago eta ezagun izaten da, musikoek ez dakite inprobisatzen, solorik egiten... Akademietan musika modernoa erakutsi beharko litzateke" AITOR ARANBURU

joaten eta jendea hotz egoten da, ez dago feeling-ik.

- **A.A.:** Feeling-a ez du entzuleak ematen, musikoak jarri behar du, musikoaren jarrerak eragiten du. Horretaz aparte taldeak, beharbada, kontzertuak ez emateagatik desegiten dira; entsaiatu eta entsaiatu egiten da eta zuzenean ez jotzeak frustrazio handia sortzen du.

- **Herritik kanpo ibiltzen zarete?**

- **M.K.:** Kanpoan ibiltzen diren taldeekin harremanak badituzu, ateratzeko aukera gehiago du-

zu, baina, egia esan, ez gara asko ateratzen.

- **A.E.:** Oso gutxi, ezetz esan daiteke. Ikasten ari gara eta ez dugu astirik.

- **A.A.:** Nik uste dut konpromezua falta dela. Ikasketei edo beste edozeri musikari baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, inoiz ez duzu astirik izango. Nahi izanez gero, astia ateratzen da, asteburuetan, e.a.

- **Lokalekin eta arazorik baduzue?**

- **A.E.:** Ez, badira sortu berri diren eta lokalik ez duten taldeak, baina besteok badugu. Batzuek

beste talde batekin dugu, baina moldatzen gara. Udalak lokala emateagatik, urtean behin jotzeko konpromezua eskatzen du.

- **M.K.:** Badira dagoeneko deseginda dauden eta lokala duten taldeak ere, eta jakina, horiek, talde sortu berriei lokala edukitzeko aukera kentzen ari zaizkie.

- **A.A.:** Zenbait taldek desagertu eta udalari horren berri ematen ez badite, hemendik urte batzuetara beste 20 lokalen beharra egongo da. Garbi dago, lagatzen dutenek jakinarazi egin behar dute.

- **Zerbaiten beharrik ikusten al duzue?**

- **M.B.:** Lokal bat edo gaztetxea behar da, taldeek euren musika ezagutarazi eta besteen lana entzuteko aukera izan dezaten.

- **A.A.:** Ondo funtzionatzeko, antolatutako gaztetxea behar da: udalak, duen aurrekontuarekin, festetan, hainbeste diru gastatu beharrean, gaztetxeari hilean hainbesteko bat eman beharko lioke, hartara, era guztietako ekitaldiak antolatuko litzateke: giñola, kontzertuak, antzerkia, eta herrian mugimendu haundiagoa egongo litzateke...

- **M.K.:** Gaztetxea ezinbestekoa da. Gaztetxean era guztietako jendea sartuko bada, denona izango bada, denok hartu beharko dugu parte, guztia batzuen esku laga beharrean.

"Musikan jarduteko ez dago talde batean sartuta egon beharrik, batean batzuekin jo dezakezu, hurrengoan beste batzuekin" MIKEL BERASATEGI



Fucking What, Txokolate Revenge, Memphis Belle, Daxka, Angiollilo, eta Old Boys Quintet dira Bergaran lanean ari diren taldeak. Batzuk jaietan Bideberrin joko dute.



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea.

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25

UDAL ZERBITZUAK

- Alkatetza
77 91 01
- Bulego Teknikoa
77 91 68
- Euskara
77 91 66
- Udal Euskaltegia
76 44 53
- Gizarte Ongizatea
77 91 65
- Idazkaritza
77 91 00
- Kirolak
77 91 67
- Igerilekua
76 20 51
- Kiroldedia
76 50 41
- Kontuhartzailtza
77 91 64
- Artxiboa:
76 28 40



UDAL ZERBITZUAK

- Kultur Etxea
76 44 46 / 76 07 53
- Bideo tailerra
76 44 46 / 76 07 53
- Haur dinamizazioa
76 44 46 / 76 07 53
- Liburutegia
76 44 46 / 76 07 53
- Museoa eta ondarea
76 44 46 / 76 07 53
- Mizpirualde egoitza
76 13 68
- Obra eta zerbitzuak
76 07 73
- Turismo Bulegoa
77 91 28
- Udaltzaingoa
Telefonoa:
77 91 06
Faxa:
77 91 63

BERGARAKO UDALA

DENBORA LIBRERAKO AUKERAK

- ADIN GUZTIETARAKO KIROLA
- EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK
- AFIZIOAK LANTZEKO AUKERA UGARI
- HAURRENTZAT AKTIBITATE PROPIOAK
- HEZKUNTZA ESKAINTZA ZABALA
- GUZTIENTZAT JAIK
- Haurrentzat: JOLASAK, PARKEA, TRENA...
- Gazteentzat: ROCK JAIALDIAK, MOTO TXIKIEN ERAKUSKETA, ENTZIERROAK, BAZKARIA, POTEOA...
- Nagusientzat: SUKALDARITZA LEHIAKETA, KONTZERTUAK, DANTZALDIAK...



☎ 77 91 67



☎ 77 91 66



☎ 76 44 46

Soldaduzkaren aurka

Herriko ikastetxe ertainetan egindako inkesta batean intsumisioaren aldeko iritziak jaso dira



Herriko gazteak, neska zein mutil, soldaduzkaren kontra daude. ARTXIBOA.

Bergarako Objetoze Talde Antimilitaristak herriko ikastetxe ertainetako ikasleen artean egindako inkesta batean jasotako erantzunen arabera, ikasle gehienak soldaduzkaren aurka eta intsumisioaren alde daude.

Orain dela aste batzuk Aranzadi ikastola, Ipintza Institutu, Miguel Altuna Institutu eta Mariaren Lagundiko 14 urtetik 22

urtera bitarteko ikasleen artean egin zuen galdeketa BOTAk. Planteatutako galderei, 809 ikaslek eman zien erantzuna, 429 neskak eta 380 mutilek.

Soldaduzkaren abolizioa eta intsumisioaren despenalizazioa

Soldaduzkaren aurrean daukaten jarrerari buruz galdetutakoan, 614 ikasle abolizioaren alde dago

(315 neska eta 229 mutil), 94 aurka (53 neska eta 41 mutil) eta 101ek ez dute erantzun. Intsumiso egiteko prest leudekeen galdetutakoan, 392k baiezkoa eman dute (230 neska eta 162 mutil), 188

ez leudeke intsumiso egiteko prest (77 neska eta 111 mutil) eta 229k ez du erantzun. Bestalde, 722 ikaslek (381 neska eta 341 mutilek) intsumisioa ez dela zigortu behar uste du.

Ze motatako ejerzitioa nahi duten galdetutakoan, 357 (214 neska eta 143 mutil) ejerzitorik ez egotearen aldekoak dira. 332k (141 neska eta 191 mutil) ejerzito profesionala nahi dute eta 32 ikaslek ejerzito mistoa.

Ejerzitoen abolizioa eskatzeko talde antimilitaristek egiten diharduten kanpainaren barruan kokatzen da BOTAk egindako galdeketa. Zentzu honetan, esan dezagun apirilean mozio bat aurkeztu zuela Bergarako Talde Antimilitaristak udaletxean, baina orduetik egin diren plenoetan ez da gaia aztertu.

"392 ikaslek intsumiso egiteko prest leudekeela erantzun dute"



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA


Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

**BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA**

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77

Bergaran espero zenituen emaitzak gertatu dira udal hauteskundeetan?



Indalecio Martínez
61 urte, jubilatua

Ez da ustekaberik izan nere ustez, pentsatzen zena gutxigorabehera eman da. Baina ez dut gaia gehiegi jarraitzen.




Blanca Narbaiza
38 urte, langilea

Sorpresa haundirik ez. HBren gorakada eman da, Maite hor dago, oso erakargarria da... Bestalde, IUk kontzejal bat aterako zuela pentsatzen nuen.



Amaia Bengoa
28 urte, langilea

Nik uste dut berdintsu dagoela baina politika ez dut asko jarraitzen.



Andres Aiastui
60 urte, langilea

Nik espero nuen emaitzak eman dira gutxigorabehera. Niretako ez da sorpresarik egon.



Maria Jesus Gutiérrez
53 urte, langilea

Nik espero nituen emaitzak eman arren zalantzak nituen. Beste tendentzia batzuk dituzten jende gaztea dagoelako batipat.



Enrique Aranburu
25 urte, ikaslea

Espero zena eman da nere ustez, ez da ustekaberik eman eta IU eta PPK ezin izan dute zinegotzirik lortu.

Esenio Gabinetea
San Antonio 5 1. D BERGARA
☎ 76 07 87

ASTRODIAGNOSIA • IRIDIOLOGIA
SENDABELARRAK
KARTA ASTRALAK • TAROTA
HIDROTERAPIA • KATAPLASMAK

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkale, 21 BERGARA

**POL-POL
Taberna**

☎ 76 07 78



Islada abertzalea

Gure herrian emandako emaitzak Gipuzkoaren islada fidela dira. Inork ez du gehiegi galdu, ez eta irabazi ere, beraz ez dago garaile ala galtzailerik.

PNV gorantza doa poliki poliki, agian astiroegi alderdi honetako arduradunentzat.

HBk igo egiten du baina ez ditu 1987eko emaitzak berdintzen, nahiz eta zazpigarren zinegotzia eskuratu.

EAK ehun boto baino gutxiago galtzen ditu eta, beraz, lanean jarraitzeko arrazoi ugari dauzka.

PSE-EE jaitsi egin da baina duintasunez -EEren ia 500 botoak IUra hanka eginez- "textuinguru" zeharo latza izan dutela kontutan izanik.

Dena Gipuzkoa mailan gertatu den bezala, salbuespen aipagarri batekin: Udaletxea hamasei zinegotzi abertzalek (%83 boto) eta sozialista batek osatuko dute.

Azken finean alderdi bakoitzak bere tokian darrai tinko eta aldaketa gutxi izango dira. Tripartitoak hamar zinegotzi ordezkatzeko ditu, orain lau urte bezala. Victoriano Gallastegik ez du inolako oztoporik gobernu batzordea errepikatzeke.

HB bakar bakarrik gelditzen da -bakardadea ez omen da inoiz izan eragozpena bere lan politikoari ekiteko- oposizioaren papera betetzeko.

Iñigo URRUTIA



Erreflexiorako uneak

Iragan igandeko hauteskudeen emaitzak begi bistan dauzkadala, burutazioak baino bi edo hiru konstatazio egitea erabat beharrezkoa dela deritzot.

Garbi azaldu da, beste behin ere, eta itsuenak ere badakusa, herri erabat abertzalea dugula Bergara, euskal abertzaletasunaren printzipioak aldarrikatzen dituzten indarrek espainiarzaleak bost biderrez gainditu bait dituzte. Garbi azaldu da ere gaurdaino izan dugun alkateak bere alderdiko botoemaileenaz aparte PP, PSOE eta Eusko Alkartasunako zenbait botoemaileen konfidantza eskuratu duela, eta horretarako Batzar Nagusietarako eta udalerako botu kopuruak konparatu besterik ez dago. Eta hirugarrenez, hauteskunde hauetan, garbi eta argi ageri da Herri Batasuna izan dela iragan legaldian baino zinegotzi gehiago lortu dituen indar bakarra, jeltokideek lortu dituztenekin parekatuz.

Tripartito izeneko itunkideek alkatetza Victoriano Gallastegiri emango diote, lejitimitate osoz, eta Gallastegiri tokatuko zaio herriaren asmo eta kezka bete eta konpontzea, herriaren nahia ordezkatzeko eta udaletxea bera gobernatzea. Ardura handia, zalantzarik gabe, baina haundiagoa oraindik, lortuko duen gehiengo horrekin, oposizio indar bakarra, eta ez makala, herriko lanetan jarduten uztea eta Maite Aristegik ordezkatzeko dituen ia hiru mila bergararrak udaletxetik kanpo ez uztearena. Erreflexio eguna iritsi dela deritzot.

Martin GARITANO

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**N
I
N
I
K
A**

LOREAK MUNDU OSOAN



INTERFLORA

**L
O
R
A
D
E
N
D
A**

Jai alaitsuak igaro ditzazuela!!



Gustora ibili ziren larunbatean moto txikien erakustaldira Seminariora agertu zirenak.

**Hau da hau
abilidadea!!**

Larunbatean **moto txikien erakustaldia** ikusteko Seminariora hurbildu ziren ikusleak harriturik geratu ziren pilotoei hain moto txikietan ibiltzeko azaldutako trebeziarekin. Proba oso ikusgarria gertatu zen eta amaieran begar asko animatu ziren horrelako motoak probatzera. Zorionez ez zen istripurik izan eta, horrela jarraituz gero, zenbaitzuk Herri Torrontegiren parera heltzeko maila badutela erakutsi zuten...

Dantzariak protagonista

Dantzari gaztetxoek igandeko hauteskunde eguna alaitu zuten goizeko lehen ordutik. Guztira 11 talde eta 350 dantzari inguru etorri ziren eta egunean zehar bero handia egin zuen arren, ez zitzairen ez dantzarako gogorik falta izan. Talde ezberdinek (Aranzadi Ikastolako taldea tartean) goizez zein arratsaldez dantza erakustaldia eskeini zuten Plazan eta, egunean zehar alkatea aukeratzeko bozketa egiten zen bitartean, dantzariak agindu zuten herrian. Eguerdian Victoriano Gallastegi alkateak argazkian agertzen diren Malen Gurrutxaga eta Ander Elkoroberezibar alkate txikiei pasa zien testigua. Jaigiroan, arratsaldean eman zitzaion amaiera aurtengo haurren euskal jaiari. Hurrengo urtera arte!!




Ander Elkoroberezibar eta Malen Gurrutxaga, egun batez herriko alkate eta alkatesa



IPIÑARRI ZERRATEGIA, S.L.

Eraikuntza, aroztintza, altzari eta enbalaietarako "Insignis pinu", "Alerce" eta abarren eguraren zerraketa eta lanketa.

Ibarra z/g, posta kutxa 184 20570 BERGARA ☎ 76 15 93



Argazki sarituak

Dani Santos Pol-Pol Argazki Taldeko kideak **Bergara Hiria Lehiaketako** koloretako argazkien lehen saria irabazi du aldamenean ikus dezakezuen "Tauromaquia II" argazkiari esker. Bigarren saria Agustin Gurrutxagak eskuratu du ("Candidez"), hirugarrena Hilario Azkargortak ("San Antonio") eta herriko onena, berriz, Natxo Millan izan da "Cascada II" lanarekin.

Zuribeltzean, Berangoko Javier Pedro Fernández Ferrerasentzat izan da lehen saria ("Foto II"), Javier Martin gasteiztarrak bigarren saria lortu du ("Bicicleta"), Agustin Gurrutxagak eraman du hirugarrena "Pagoa" lanagatik eta, azkenik, herriko onena, Dani Santos izan da "Al viento" lanari esker. Ikus dezakezuen, 46 partaideek aurkeztutako 147 argazkien artean bergararrak izan dira nagusi. Aurkeztutako lan onenen erakusketa Kultur Etxean ikusgai egongo da ekainaren 11ra arte.

Hauteskundeetako informazioa

BERRIGARAK igandeko **udal hauteskunde**en inguruko orria kaleratu zuen astelehen goizean. Bertan Bergarako hauteskundeetako emaitzak (udalerako zein batzar nagusietarakoak), alderdi ezberdinetako zerrendaburuen orazioak, udalbatza osatuko duten 17 zinegotzien argazkiak edota inguruko herrietako emaitzak jasotzen ziren. Hauteskundeei buruzko orriak 3.000 aleko tirada izan zuen, herriko kiosko, banketxe, liburutegi edota ikastetxeetan banatu ziren, eta argazkian ikus daitekeenez, harrera ona izan zuen herritarren artean. *Gebingoak* informazio zehatza eta puntuala jasotzeko aukera izan zuen...





Herrian gertatu ziren emaitzak jaso ziren orri berezian.

Zertan dihardute ba?



Martin Garmendia 31 urteko albaitari bergararrak praktikak egingo ditu ekainetik aurrera Karrantzako Animalien Erreabilitaziorako Parke Berrian. Aipatutako parkea maiatzaren erdialdean zabaldu zen eta bertan zauritutako animaliak (otsoak, hartzak, katamotzak edota arranoak) jaso eta naturara itzultzeko lanak egiten dira. Oso larri dauden animaliak Karrantzan bertan mantentzen dira. Martinek aipatu digunez, *"oso ondo ekipatuta dago eta pozik noa azken batean betidanik gustatu izan zaidana egingo baitut"*. Mendia Bizirik ere kolaboratzen du Karrantzako Parkearekin.

AZOKA PLAZA



☎ 76 02 44

Felix Beitia

Metagrako langilea, Felix Beitia (42 urte) 15 bat espezialidade biltzen dituen herri kiroletako epailea da orain 16 urtetik hona, batipat sokatirako norgehiagokatan aritzen delarik. Horrez gain, Jai Batzordean egin du lan azken 26 urteetan.

- Nolatan herri kiroletako epaile?

- Bokazioagatik.

- Polemika ezinbestekoa da?

- Orain araudia bete eta Disziplina Batzordeak hobeto funtzionatzen duenez gutxiago egoten da.

- Herri kirol bat.

- Sokatira. Mundu guztian egiten da gainera: Indian, Japonen...

- Indarrak zenbateko garrantzia?

- 1etik 10era 6.

- Desio bat?

- Sokatira Olinpiadara iristea. Lehen bazegoen...

- Kirolari bat.

- Perurena. Eta taldeetan Nuarbe.

- 321 kiloko harria baino astunagoa, zer?

- Hortik gorako danak. Eguneroko lana ere ez da makala...

- Emakumea harria jasotzen bai?

- Ez dut uste harria



"Bokazioagatik egin nintzen herri kiroletako epaile.

Gehien sokatira gustatzen zait; mundu guztian egiten da eta Olinpiadara iristea gustatuko litzaidake.

Harria, berriz, ez dut uste emakumearentzako denik.

Pazkuetan ambiente sanoa egotea gustatzen zait"

emakumearentzako denik.

Sokatiran ostera asko dabilta.

- Herri kirolen etorkizuna nola ikusten duzu?

- Instituzioen laguntza gehiago behar du.

- Jaietan Saloura?

- Ez, jaiak jaiak dira.

- Gaupaseroa zara?

- Izan naiz.

- Jaietako gauzarik onena eta txarrena?

- Ambiente sanoa. Txarrena eguraldi txarra.

- Barraka bat?

- "El Aguila" (abiadura haundiz gora eta behera egiten duen plataforma).

- Txekorketara joango zara?

- Bai.

- Gehien gogoratzen duzun jaietako ekitaldia?

- 7 probintzietako jaialdia, 77an Frontoian. 3.000 ikusle izan ziren.

- Zenbat etxaflero jaurti dituzu jaietan?

- Milaka, aspertu arte. Baina gero eta gutxiago, arriskutsuak baitira.

- Ajerako gauzarik onena?

- Ez edukitzea, neurrian edatea.

- Biziorik baduzu?

- Zigarroa erretzea (egunean 12 bat).

- Udal hauteskundetako emaitzak espero zenituen?

- Balekoak dira baina tristea da Euskal Herrian borroka dagoelako.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Deban udan. Plaia eta Alameda alboan. ☎ 76 58 91 (gauz).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 05 86.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Estudioa alokatzen da Benidormen. ☎ 76 23 43.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu bat alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Arrasaten. ☎ 77 14 24.

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

Pisua salgai Donostian. ☎ 76 31 79.

Garajea salgai Zurradero 2an. ☎ 76 12 42.

Pisua salgai Artekalen. ☎ 908-57 96 39.

DENETARIK

Volkswagen kakalardoa salgai. ☎ (94) 673 01 22.

Fotometro bat salgai. ☎ 76 52 31 (gauz).

Yamaha XT-E Trail motorrak salgai. ☎ 76 03 40.

Suzuki 442-S motor txikia salgai. ☎ 76 25 31.

Trialeko Cota 349 motorrak salgai. ☎ 76 18 96.

Karabana bat salgai. ☎ 76 46 97 (gauz).

5 hilabeteko **Collie-artzai** txakur bat oparituko nuke. ☎ 76 50 58 (Beatriz).

Altzariak salgai egoera onean. Ohea eta armario roperoa. ☎ 76 07 87.

Opel Astra kotxea (BI-BP) prezio onean salgai. ☎ 70 23 84 (Fernando).

Opel Kadett kotxea salgai. ☎ 86 14 16 (Nekane).

Bi betaurreko pare galdu ditut, bata bifokala (montura doraduna) eta bestea gerturakoa. ☎ 76 23 24.

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Txakur emea estaltzeko **doberman har** bat behar dut. ☎ 76 57 67.

Aluminiozko **Vitus** bizikleta salgai. Ia berria. Pedal automatikoa. ☎ 76 51 96.

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingeleza, euskara. ☎ 76 40 27.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Ingeles batekin gaztelera eta ingeles klaseak aldatuko nituzke. ☎ 76 24 54.

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Arratsaldez **zaharrak** edota **haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 18 (Susana).

Sukaldari bat behar da Valle de Aranen (Lleidat) lan egiteko. ☎ 76 43 96.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

23 urteko **mutil** batek as-tebukaeretan **lan** egingo luke. ☎ 76 64 65 (gauz).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.






gizon eta emakume



Barrenkale, 35
BERGARA

Aprobetxa ezazu orain markazko bakeroen promozio berria





"Herriko hainbat txokotan izan diren aldaketan berri Bonofotoaren bidez izan du jende askok"

"Baserriak, herriko etxe edo fatxadak, eskulturak edota gauza konkretuei ateratako argazkiak jaso dira"

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR, IRAKASLEA

"Normalean notizia ez diren tokiek bere presentzia izan dute Bonofotoan"

Miguel Angel ElkoroBerezibar (29 urte), Berrigarako lehen zuzendaria izan zen. Orain dela lau urte pasatxo errebista argitaratzen hasi zen taldeari astekariaren atalen artean joku bat sartzea bururatu zitzaion: **BONOFOTOA**. Harrezkero, 100 argazki ezberdin argitaratu dira Berrigarako lehiaketa arrakastatsu honetan.


Nola okurritu zitzaizuen Bonofotoarena?

- Astekaria sailez sail osatzen ari ginenean, hasiera-hasieratik bururatu zitzaigun. Etxean argazki batzuk nituen eta proba modura ekarri nituen erredakziora, jendeari ideia ona zela iruditu zitzaion eta argitaratzeari ekin genion.

- Zein izan zen lehen Bonofotoa?

- Berrigararen lehen alean Elosuko Labia baserria sartu genuen eta pautta bat markatzen zuen, hau da, normalean notizia ez diren baserri edota auzoak, bere presentzia ziurtatu zuten errebistan.

- Joku edo lehiaketaren bidez, herriko txoak erakutsi...



"Bonofoto guztietako galderak erantzun ditu batek baino gehiagok".

- Bai, konkurtsoak berrez erakargarriak dira eta gero argazkia ateratzen den tokiko jendea identifikatu edo inplikatu egiten da. Honela, herriko hainbat paraje ezagutzera ematen dugu eta normalean ailegatzen ez garen hainbat auzo edota baserriara heldu.

- Konkurtso arrakastatsua gertatu da gainera...

- Bai, astero-astero zein hamabostean behin, lau urte izan dira eta erantzun asko jasotzen

dira oraindik. Batek baino gehiagok geratu naukalean eta Bonofoto guztietako galderak asmatu dituela esan dit. Bestalde, enteratu naiz badagoela lagun kuadrila bat Bonofotoko argazkia non, pasiatzen bertara joateko ohitura daukana.

- Ze erizpide erabiltzen duzu argazkia eta galdera aukeratzekoan?

- Leku ezberdinetako argazkiak jartzen saiatzen naiz. Gero, normalean, baserriak, herriko etxe edo fatxadak, kalean aurki daitezkeen eskultura edo beste mota bateko gauza konkretuak eta edozein galdera sor dezaketenen argazkiak sartzen ditut.

Argazki asko, kalean geure begien aurrean izan arren normalean ikusten ez ditugun gauza konkretuei ateratakoak dira eta jendeak eta nik ere sorpresa handiak hartu ditugu. Herriko hainbat txokotan izan diren aldaketak ere jendeak Bonofotoaren bidez jakin izan ditu askotan eta esan behar da, Bonofotoan ateratako baserri batzuk, esate baterako gaur ez direla esistitzen.

"Badago lagun kuadrila bat Bonofotoko argazkia non, pasiatzera bertara joateko ohitura daukana"



Ipintzako futbol txapelketa jai ostein

Ipintzako futbol txapelketarako izena emateko epea datorren ostegunean amaituko da. BKEek Bidekurutzetan duen bulegoko buzoian arratsaldeko 7ak baino lehen hurrengoko baldintzak beteko dituen zerrenda aurkeztu beharko da: gutxienez 14 jokalar eta gehienez 18ko taldeak, taldearen delegatuaren izena eta telefonoa eta kamisetaren kolorea. Halaber aurkeztutako taldeetako ordezkariak ostegunean Agorrosineko aldageletan egingo den bilerara joan beharko dute derrigorrez. Bileran horretan talde bakoitzak 10.000 pzta ordaindu beharko ditu txapelketan jokatu ahal izateko. Partiduak ekainaren 12an hasiko dira eta talde bakoitzeko 4 jokalar federatu egon ahal izango dira. Partiduak 19.30etan edo 20.30etan jokatu dira. Gehienez 20 talde onartuko dira

Angiozar taldea futbito txapelketako irabazlea



Faborito nagusia Madura bazen ere, Angiozarrek irabazi zuen.

Angiozar izan zen Labegaraietako futbito txapelketaren irabazlea Madurari 2-1 irabazi ondoren. Partidua gogorra izan zen eta bi taldeek erakutsi zuten txapelketako defentsarik onenak dituztela. Golak ikusteko bigarren zatira arte itxaron behar izan genuen

eta txapeliduna izan zen 1-0ekoa jarri zuena markagailuan. Orduan Madurak erasoko jokoari ekin zion eta korner baten ondorioz lortu zuen berdin ketaren gola. Orduan partidua pixka bat gogortu egin zen eta kiroldegi ra joandakoek berdin ketan amaitu behar zela us-

te zutenean, bi minuturen faltan Angiozarrek bere bigarren gola egin zuen Angiozartik jeitsitako jarraitzaileen zoramenerako.

Aurretik 3. eta 4. posturako partiduan Kabiak eta Arloteak jokatu zuten eta Arloteak erraz irabazi zuen 4-0eko emaitza lortuz.

Kopako Finalak

Oraindik ere antolatzailerik ez dute kopako finalerako eguna eta ordua zehaztu, baina seguraski jai osteko larunbat arratsaldean jokatu da. Angiozar, Arloteak eta Ufalak udako torneoek modan jarri duten sistema erabiliko dute. Denek denen aurka jokatu dute 25 minututako 3 zatitan banaturik.

DANTZARIAK • TXALAPARTA • ARRASATE
 MUSIKAL BANDA • BITTOR AIAPE
 SEBASTOPOLEKO
 TITIRITEROAK • KAXIANO
 MARKOS LANDA
 BERTSOLARIAK
 ANTZERKIA • GOZATEGI
 HAUR JOLASAK • KONTRAIRO
 ARKAITZ • OSKORRI • EXKIXU • E.H. SUKARRA...



Urpekari titulua

Kirol urpekari titulua lortu ahal izateko ikastaroa antolatu dute Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuek. Ikastaroa ekainaren 19rik 25era bitartean izango da eta izen emateko epea ekainaren 15ean bukatuko da.

Edadetuentzako kirol jaia

Datorren ostiralean Elgetan Deba Garaiko Edadetuentzako IV. kirol jaia ospatuko da. Kirol Zerbitzuan eman beharko da izena, astelehena baino lehen.


Deba Arroko finala

Igor Gutiérrez eta Abraham Osak igandean Eskoriatzan goizeko 10,30etatik aurrera jubenil mailako Deba Arroko finala jokatu dute Sorluzeren aurka. Joan zen ostiralean, aldiz, Bergarak Herri Arteko pelota txapelketan 2-1 galdu zuten Sorluzeren aurka.

Kirola egiteko eskaintza zabala Uda kanpainan

Udal Kirol Zerbitzuak udarako hainbat kirol egiteko aukera zabaldu du. Bi txanda izango dira, lehena ekainaren 26tik uztailaren 7ra izango den bitartean bigarrena uztailaren 10etik 21era. Lehen txandarako izena emateko ekainaren 21ean bukatzen da eta uztailaren 5ean bigarrenerako.

Kirol eskeintza adin eta gusto guztientzako dago egina. Igerilekuan 5 urtetik gorakoentzat igeriketa hasiera eta igeriketa hobekuntza izango da eta 2-4 urte bitartekoentzat ere izango da aukera. Ur azpiko kirola egiteko aukera ere izango da, baina lehenengo txandan bakarrik. Kiroldegian 6 urtetik gorakoentzat tenisa izango da eta 12 urtetik aurrerakoentzat eskalada. Kiroldegian ere 10 urtetik aurrerakoentzat mountain bike izango den bitartean, 6tik 14 urtera bitarteko-



Igerilekuetan ere kirol ugari egin ahal izango dira.

entzat askotariko kirolak eta arku tiraketa 14 urtetik aurrerakoentzat. Institutuan 14 urtetik gorakoentzat jazz dantza eta aerobic ikastaroak izango dira eta igerilekuetako gimnasioan sasoian jartzeko aukera dago.

Seminarioan, aldiz, 8tik 14 urtera bitartekoentzat patinajea, Urkulun 14 urtetik gorakoentzat piraguismoa eta Zabalo-

tegi eta Kiroldegian askotariko jarduerak daude iragarrita. Eskaintzarekin jarraituz abentura kirola egiteko aukera izango da 16 urtetik aurrerakoentzat. Hauek rafting-a, hidroespeed-a, kainoi jeltsiera, piraguismoa, kayaka etb egiteko aukera izango dute. Informazio gehiago nahi izanez gero Udal Kirol Zerbitzura jo (77 91 67).



Muruk eta Raik ezin izan zieten Haritz eta Galarzari irabazi.

Ezin finala irabazi

Iker Muruamendiarezek eta Raik 22-17 galdu zuten Haritz eta Galartzaren aurka eta ondorioz, 2. sailkatu dira Eskutaldeak antolatutako txapelketan.

Muruamendiarezek partidu ona egin zuen eta 13 eta 6 irabazten joan arren, azkenean bere atzelariak ohi baino pelota gehiago galdu zituen. Txapelketako atzelaririk onenaren saria Raik jaso zuen bitartean Haritzek aurrelari onenarena eraman zuen.

Frontoia bete ez zen arren Muruamendiaren aldeko oihuak entzun ahal izan ziren. Sariak banatzen Victoriano Gallastegi alkatea, Luis Abajo zinegotzia eta Iñigo Zaitegi izan ziren. Xamatzek dantzan egin eta pelotariei arkua egin zien.

KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-Zarautz

Lehen erregionala.

Mailaz jeisteko promozioa.

Larunbata, 18.00. Agorrosin.

► **Eskubaloia**

Bergara-Urrietako

Senior mutilak.

Larunbata, 18.30.

► **Pelota**

Pentekostes txapelketa

Lehen eta bigarren mailako profesionalak.

Larunbata:

Arteaga eta Arroyo /

Koka eta Oregi I

Etxaniz eta Tolosa /

Eugi eta Galarza III

Ansotegi eta Galardi /

Badiola I eta Oliden

Igandea:

Goñi eta Balerdi /

Lejardi eta Bazeta

Unanue eta Lasa III /

Nagore eta Zezeaga

Soroa III eta Astarloa /

Ortiz eta Azkarate

Asteartea:

Finalak

Kalonge eta Alberdi III /

Oregi II eta Andueza V

Partidu guztiak 16.30etan

Udal pelotalekuan.

► **Txirrindularitza**

Txirrindulari Afizionatuen

Errepideko Euskadiko

Txapelketa. LX.

Pentekoste saria

Igande goizean.

Begoña Payas

Eskola kirolaren antolaketan

Begoña Payasek 7 urte daramatza gure herrian Eskola Kirola antolatzen eta dagoeneko aurtengo denboraldia amaitu da. Urteko balorazioa egiteko hitz egin dugu berarekin.

-Dagoeneko bukatu da aurtengo eskola kirolaren denboraldia eta zela baloratzen duzu?

- Asistentzia oso ona izan da. %90 entrenamenduetara joan da eta partiduetara ere bai. Hiru kategoria ezberdin daude: benjaminak (OHoko 3. eta 4. mailakoak), alebinak (5. eta 6. mailakoak) eta infantilak (7. eta 8. mailakoak). Lehenengoek Bergaran jokatzeko dute, bigarrenen onenak Deba Garaiko finaleira joaten dira eta nagusi-enek Gipuzkoa mailako txapelketan jokatzeko dute. Alebinetan 3 Deba Garaiko final irabazi ditugu eta infantiletan Aranzadi ikastolako neskek Gipuzkoako finala irabazi dute. Hori ikusita balorazioa ona da. Halere guri interesatzen zaiguna haurrak entrenatzera eta jokatzera joatea da. Helburua kirola egin dezatela baita.

- Zela antolatzen dituzue urtean zehar egi-ten dituzuen ekintzak?

- Guk koordinazioa daramagu. Irailean herri guztietako arduradunak elkartzeko gara eta ditugun taldeen arabera egutegi bat egiten dugu. Benjamin eta alebinetan, berriz, herriko eskolen

arteant egiten dugu.

- Ze kirol mota bultzatzen duzue?

- Txapelketak futboleant, eskubaloian eta saskibaloian antolatzen ditugu. Benjaminek urtean zehar hainbat kirolatan aritzeko aukera izaten dute. Eskubaloian, saskibaloian eta futboleant sei astetan aritzen diren bitartean, beste bi astez igeriketan, atletismoan etb.etan ibiltzen dira. Alebinetan saskibaloia, futbol eta eskubaloia txapelketak bukatzen direnean, atletismo, badminton, igeriketa eta pe-

lota dute aukeran. Infantiletan, aldiz, espezializatu egiten dira, hemen taldekako kirol bat banako batekin nahasteko aukera dute.

- Haurrek urtean zehar kirolak tartekatze-arena, ze helbururekin egiten da?

- Denetarik frogatzeko aukera dute eta konprobatuta dago horrela formazio hobea lortzen dela. Futbola da mutilei gehien gustatzen zaien kirola eta neskei eskubaloia. Halere, gero eta neska gehiago dabil futboleant.



"Gero eta neska gehiago dabil futboleant".

"Eskola kirolarekin neska-mutikoek kirol guztiak egin ditzatela lortzen dugu"



1965eko Pazkuak

O in brusa edo alkondara lehiaketia dauan moduan, lehen, 1965ian, antzerako zeoze be bazuan. Erretratuko kuadrillia izan zan, lelengo lehiaketa honen irabazlia eta 1000 ptako ordaiña jaso zeban, daroian jantzi dotore-dotore horregaittik. Hor daukazu irabazittako kopa eta guzti erretraturako gertu.

Tente: Luis Belastegi, M. Luisa Bengoa, Luis Larrañaga, M. Pilar Iñarra, Jose Garitano, Begoña Madariaga, Jabier Lizarralde, Konsuelo Ibarra, J.M. Guridi, Fernando Gardoki, M. Asun Belastegi, Juan M. Alberdi, Maribi Leturia, M. Dolores Mendizabal, Joxe Lazkano.

Makurtuta: Rosita Uribarren, Carlos Gallastegi, Luis M. Beistegi, Jose L. Mendizabal, M. Tere Larrañaga, Elisa Ugarte, M. Tere Alberdi, Patxi Leturia, Beatriz Guridi.

Felipe Iñarra

Erretratua: Alex Gardoki

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak

astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZA

Kruz Gallastegi, 2 behe

☎ 76 23 48



ederka

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA



ARGAZKI

PROMOZIO BEREZIA!!

**Errebelatu itzazu zure
argazkiak 10x15 edota
13x18 neurritara
(biak prezio berdinean).
Karrete bat eta anpliazio
bat oparituko dizugu!!**




HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukalderako altzariak

Sukalde zoragarriak!